



uk

246. zenbakia / 2014ko otsailaren 11

beharsarea.net

Uribe Kostan lana euskaraz

Umea zaintzeko edo ikastolara eroateko norbait behar duzu?

info +: Behars@rea Bizkaia: www.beharsarea.net
 Behars@rea Erandio: www.beharsarea.net/Erandio/
 Behars@rea Leioa: www.beharsarea.net/Leioa/
 Behars@rea Getxo: www.beharsarea.net/Getxo/

URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
 Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
 Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
 Urte osoan argazki zahar eta barriak
 Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
 Urtean 20 euro

Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz neuk ere gura dot

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
 ERREDAKZIOA: Zuberioa Iturburu, Julen Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando Llamosas, K. Olate, Amaia Ariaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
 MARRAZKILARIA: Laurita Siles
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Non zer

4. PLAZA. K.olate
5. IRUDIA. Sopelako pasabidea.
6. FACEGUK. Sanblas-haria jantzi duzu? Zertarako eta zergatik?
7. LEHEN ETA ORAIN. Malakate (Getxo).
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Gotzon Batikon Etxegarai.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Itsas-afrontua, enbata, denboralea.
28. ARGAZKIA. San Inazio eliza, 1894.
30. BERBETAN. Eunate Agirre.
34. FOTOGRAFIA. Martin Presumido Szymczak.
40. SAKONEAN. Baleen bidetik, Plentzia.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. FANT-erako izen-emotea.
43. MUSIKA. The original Wailers, Bilbon.
44. LIBURUAK. Gabriel Aresti ipuin-lehiaketa.
45. KIROLAK. Raspasen eta Portugaleteren arteko hitzarmena.
46. MUNDUKATUAK. Ane Ibarra Muro.
47. ZIENTZIA. Uribe Kostako kate-maila.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Onddoak eta ahuntz-gazta patata-tortillan.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. ALBEko bertsolari-ikasleak, 1999.
54. AITORMENAK. Aitziber Estanga.

Azala: Martin Presumido Szymczak

www.ukaldizkaria.biz




30 Eunate Agirre

Berbetan

Sopeloztar bodyboardlariak lehiatze-ari uzteko hartutako erabakiaren eta etorkizunaren gainean jardun du.



11 Gotzon Batikon



54 Aitziber Estanga

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

K.Olate

Legal-ilegal

Argi hitz egin du Espainiako gobernuburuak Kataluniako instituzioek iragarritako erreferendum soberanistaz: ezinezkoa da eta ez da egingo. Zergatik? Legearen aurkakoa delako. Dena demokratiaren izenean, demokrazia katedra jarri baitute, *artxila-murtxila!*, demokrata bihurtutako frankistek. Demokratiaren muina –*“la esencia”*– legearen errespetuan datza, azaldu du Rajoyk; eta legearentzat Espainia denez demokratiaren neurria, alferrikakoak dira borondate demokratikoa ontzi txikiagotan jasotzeko ahaleginak: horra hogeita hamaika eskutik.

Es kubide oren iturburu omen den Konstituzioak demokratiarekin zerikusi gutxi duten arrazoi faktualek definitutako nazioari baino ez dio onartzen erabakitze eskubidea; esparru geografiko eta instituzional horretan harrapatutako herrien eta herritarren borondateak ez du deusik balio; Savater gizon jakintsuak azaldu bezala, *“nazioa dagoelako dago Konstituzioa, eta alderantziz”*: Juan Palomok ez luke hobeto esplikatuko.

Muturreko positibismo juridiko honek auzia legal-ilegal kategorietara darama: lega-



la dena egingarria litzateke, ilegala –hots, Estatuak ilegal izendatzen duena–, egin ezina. Esan gabe doa Madril bere gogara moldatzen dela legal-ilegal sistema bitar honetan, Kataluniako Estatuta eta Gasteizko Legebiltzarrak onartutako Estatutu berria erraustu zituenean erakutsi zuen moduan.

Badakigu, baina, bizitzaren jarioak gainez egiten diola legal-ilegal eskemari; hori erakutsi du, beste behin, erabakitze eskubidearen alde Katalunian abiatutako ekimenak, zeinak herritarrak erakartzea eta erakunde katalanak mugiaraztea lortu duen. Hori erakusten ari da, halaber, “gure esku dago” deitura esanguratsuekin, gurean, herriz herri, hedatzen hasi den ekimenak.

Xaloa iruditu dakiok askori Estatuaren nagusikeriari ezina ekinez egiten dela erantzuten diotenen ausardia; beste

askori, aldiz, beharrezko bezain bizigarria iruditzen zaigu herritarren borondateari jarritako giltzarrapoak zartarazteko herritarren esku-hartzea sustatzen duen ekimena: hitzaren, konbentzimenduaren, elkargatzearen bidez.

Ez dut gutxiesten erakunde egitekoa; aitzitik, lidergo instituzional indartsu eta buruargia ezinbestekoa iruditzen zait burujabetzarako bidean. Baina helburua lortu ahal izateko ibili beharreko malkarrak nekez gaintuko dituzte instituzioek ez badute atzean herritar engaiatu andanaren bultzada, sostengua eta exigentzia. Horiek gabe joko instituzionalak huts egiten du, Ibarretxe zaldun bakartiaren ahalegin duin bezain hutsalak erakutsi zigun moduan.

Herritarren indarrak baino ezin du apurtu legal-ilegal binomio itogarria. ○

> K.Olate

Berbalagunak

Doinua: Betroiarena

Asteroko txokoa
hitzaren tribuna,
txintxo bertarutzen da
berba-laguna:
zuk berba ta nik berba
ohi da jarduna,
berba da guk elkarri
opa dioguna;
mihirik etzuna
gaur da berbalduna;
lotsatia, hiztuna
mingain euskalduna
txokotikan kalera
eroango duna.

gu geu

Zauriak gatzez itxi...

Urtarrilak eta otsail hasierak itsasoari begira jarri gaitu, nahi eta nahi ez, gura ez dela ere! Haserre, beldurgarri, handi, goratu, indartsu, altu, ozen... Itsasoari horiek guztiak ostuko dizkiogu, baina ez triskantzaren bat eragiteko asmoz, urte osorako indar hori metatu, eta hamabostero-hamabostero tantaka-tantaka zuoi eskaintzeko... Eta, barriro ere, kantuan ibiltzeko:

Haize enbata, brisa, galerna / gaur garbi, bihar nahasi / xake taularen zuri beltzetan / arrats gozo, egun gazi / Ai, itsasorik ez bageneuka zeri so negarrez hasi! (...)

Heldu herria sustraieetatik / tira eta gora jaso! / Jari Kantauri aurean eta / mantendu zutik hari so. / Ispilu hortan ikus gaitezen / herriz herri, auzoz auzo. / Zauriak gatzez itxi ditzagun, / malkoak urez eraso! / Sano ta libre irla txiki bat / salbatuko da akaso...

UK-ko lan-taldea




SOPELA, 2014KO URTARRILUA

Handitasunari begira / Sopolako herri-gunea eta hondartzetarako sarbidea erraztu asmo duen (BI-634 errepede gaineko) oinezkoen pasabidea eraikitzeko lan ikusgarriak dituzue hauek. Sopolako Udaletik azaldu dutenez, *“urtarrilaren 7an zutabeak jarri ziren lehenengo eta behin (garabi handi bat erabiltza)”*, eta ostean, pasabidearen beraren zatiak jarri dituzte. Lanak direla eta tarte batzuetan errepedia ebagita egon da, eta trafikoa desbideratu behar izan dute; horrek ere zelan-baiteko eragozpenak ekarri ditu. Baina, pieza erraldoiek, handitasunak harritzen gaitu, gero lanak amaituta, ez gara ezta ohartu ere egingo! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugu!

San Blas haria jarriko duzu aurten? Zein helburugaz?



Sopela

Patxi Cebas

> jubilatua

Ez naiz inoiz Abadiñora joan korde-
lak erostera, baina urtero jartzen dut.
Bilobak erosten ditu eta urtero oparitzen
dit bat. Oso pozik jartzen da haria ipin-
tzen dudanean, baina nik ez dut sines-
ten horretan, gezur hutsa da niretzat. Nik
ez dut inoiz erre haria, bilobari ematen
diot eta gero ez dakit zer egiten duen.



Loiu

Naia Zarraonandia

> langabetua

Bai, beti jartzen dut. Familian izeba
joaten da urtero Bilboko San Nikolas eli-
zara bedeinkatutako hariak erostera. Ez
dugu sinesten horretan. Eztarikoa mina
ez hartzeko balio omen du, baina beti
hartzen dut zer edo zer. Hala ere, ohitu-
ra da guretzat. Gure etxean Hausterre-
egunean erretzen ditugu hariak.



Getxo

Elena Marin

> medikua

Ez, normalean ez dut jartzen San
Blas haria. Txikia nintzenean amamak
oparitzen zidanez bai jartzen nuen; ohitu-
tura zen. Baina orain amama ez dagoe-
nez, ez dugu egiten. Ez dut sinesten kor-
del hori jartzeak eztarikoa minak kenduko
dituenik. Hala ere, tradizio hori bai gus-
tatzen zait.



Getxo

Miren Añabeitia

> jubilatua

Ez, ez dut San Blas haria jantziko
aurten. Ez dut horrelako kontuetan si-
nisten. Ez dut inoiz halakorik jarri, eta
aurten ere horretan jarraituko dut. Ohitu-
tura da horrelako gauzak egitea, baina ni
ez naute konbentzitzen gauza horiek.



Algorta

Veronica Rincon

> irakasle partikularra

Etxera niretzako kordelen bat ekarri
gero bai jarriko dut, baina bestela ez zait
axola ez eramatea. Ez dut uste horrela-
ko kontuek funtzionatzen dutenik, baina
badaezpada bai jarriko dut ekartzeko-
tan.



Algorta

Gorka Yarritu

> gestorea

Ez dut jarriko, ez aurten ez inoiz.
Sekula ez dut jarri halakorik, ez dudala-
ko kontu horietan sinesten. Ustez be-
deinkatutako kordel bat beharrean nahi-
ago dut bufanda bat jantzi eztarikoa mi-
nak saihesteko.



Iraganez doa denbora* beti / MALAKATE (GETXO)

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > eskalatzaille abila



Astrabudua, 2013ko abendua

Testua: **Josu Landeta** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Amodioa gauza tristea*

Etxe txiker bat eraiki euden aita ta amaren aroan, etxe txiker bat adreiluzkoa, halaxe dekot gogoan. Salto ta brinko jolasten gendun horma zahar horreen ondoan, baina bisaia aldatuz joan zan oso modu arraroan; huntz troinu artean ostendu eta, hara orain zelan dagoan!

Eskalatzaille abilak horman gora doaz tartez tarte, zeru bidean bardin da nori egingo deutoen kalte. Izan eskola ala gobernu, izan enpresa ala alkarte, antzeppen pobre bezain motzean itsu hartzen daure parte; hala ibiltzen dira bestean esentzia tapau arte.

Egiazkoa ezkutatu dau maltzur hazi dan adarrak, bai eta ozpindu gozoak ziren amodioaren garrak. Garbi ginenok lohiez jantzirik, gazte ginenok gaur zaharrak, leihotik lauso ikusten gabiltz lehengo paraje edarrak, baina ez gaizala abandonatu aurrera joteko indarrak.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



AI XERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Info+: bilgunefeminista.org

jardunaldia > III. Maitemuhinduz

Auzolan-topaketetako proposamenari jarraipena emon gura asmoz, Bilgune Feminista III. Maitemuhinduz jardunaldiak antolatzeko aurre-saioak prestatzen dabil. Prestaketa lanetarako lehenengo bilera hilaren 12an (10:00-13:00) ipini dute, Gernikako Astran. MaiteMuhinduz hiru eguneko topaketa edo jardunaldi "publiko eta zabala" izango da, Astran, maiatzaren 1tik 3ra. "Maitasuna, maitasun- eta sexu-harre-

manak, osasuna, plazera, sexu-joerak, bezi-keta, gizartea, gorputza, maitasun adierazpenak,... Nola bizi ditugu kontu horiek? Zelako lotura dute politika, eremu publikoa eta gizartearekin? Zer egin dezakegu bana-ka eta kolektiboki denon onerako?" Gai horiek eta ingurukoak izango dituzte gogotagai; eta horiek prestatzeko talde eragilea sortzen dabilta, "horretarako zabal-zabalik dituzu ateak". ◊

duatloia > Sopelan hilaren 15ean

Sopelako IX. Duatloia antolatu du Hirubi Triatloi Taldeak hilaren 15erako, zapatua. Bertan parte hartzeko izen-emoterako epea zabalik dago, federatuentzat kirol-ekitaldia baino aurreko egunera arte (edo 250eko partaide-kopurua betetzeraino); eta ez-federatuentzat hilaren 12ra arte. Partehartzaileek hurrengo probak bete beharko dituzte: oinezko lasterketaren lehenengo zatia, Sopelako herri-gunean ipi-

niko duten zirkuituari itzuli bi, guztira 5,2 km; ostean, txirrindularitza-proba, Sopela, Barrika, Plentzia, Urduliz eta Sopela inguratuko duen buelta, 19,2km; eta amaitzeko, bigarren oinezko korrikaldia, herri-guneko zirkuituari 2,5 km-ko itzulia. Izen-emotea Euskadiko Triatloi Federazioaren web-gunean (www.triatloi.org) egin daiteke, federatuek 20 euro ordaindu beharko dute, bestek 30 euro. ◊



Info+: info@triatlionsopelana.org



Info+: www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak

erakusketa > argiHizkiak Gorlizen

II. ArgiHizkiak literatura-lehiaketako 12 argazki eta horietan oinarritutako euskarazko testu labur onenak biltzen dituen erakusketa Gorlizko Eloisa Artaza erakustaretoan egongo da gozagai hilaren 16ra arte. Uribe Kostako Mankomunitateagaz, Erandio, Leioa, Berango eta Getxoko udalakaz, eta hainbat elkartegaz (Getxophoto, Berbots, Berbalamiñe, Leioako berbalagunak, Aitxu eta Bizarra Le-

poan, besteak beste) alkarlanean, Egizu elkarteak eta UK aldizkariak antolatu dugu ekimena, eta testuak hurrengo argazkilarien irudietan oinarritu dira: Aitor Galbarriartu, Fede Merino, Iker Basterretxea, Elker Azketa, Willy Uribe, Sara de Diego, Nagore Ayo, Juan Gomez, Natxo Pedrosa, Eduardo Camino, Peru Isasi eta Luis de Isusi; azken horren herrian egongo da orain ikusgai erakusketa. ◊

Zabaldu euskararen atea



Getxo
bizi ezazu

9E+1
BFA DFB

Hauxe da aurreztu dezakezuna zure establezimenduaren errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu

%50 gehienez 360 euro, euskara hutsez jartzen baduzu. **%30** gehienez 180 euro, euskarazko testuak lehenetsuna badu.

Getxoko enpresa hauetan eska dezakezue zuen errotulua, lehenengo seietan, gainera, deskontu gehigarria egingo dizuete:

%10 eko deskontu gehigarria euskaraz jartzen baduzu. **%5** ekoa euskaraz eta gaztelaniaz jartzen baduzu.

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA GETXOKO SALTOKIEI

94 415 22 52
geh@getxo.net

TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA

Euskal Herria 23. 94 491 54 32

RÓTULOS PUBLIARTE

Bidebarri 19. 635 752 373

CIANOPLAN

Plentzia hiriaren kalea 6- Calle Villa de Plentzia 6. 94 464 85 72

ULI ARTE PERSIANAS Y TOLDOS

Andres Cortina 14. 94 403 55 90

LA REPRO

Euskal Herria 10. 94 491 13 95

KALKO

Aingeruaren etorb. 4 B - Av. del Ángel 4 B. 94 491 29 83

KISER

Kale Nagusia 16- Mayor 16. 94 464 73 37

AMETS

Telletxe 13. 94 460 10 31

RÓTULOS ARRILUCE

Arriluze kaia z/g- Muelle de Arriluze s/n. 94 491 09 83

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11

euskara.zerbitzua@getxo.net

www.getxo.net/euskara

DESKONTU GEHIGARRIA

[erretratua]



"Nirea, musika sortzea eta giroa alaitzea da"

Gotzon Batikon Etxegarai > Urdulizeko trikitilaria

Artatza izeneko familia-baserrian jarri dugu hitzordua Gotzon Batikon urduliztarragaz. Karraderan heldu da Urdulizeko eskolatik, eta noski, panderoa eta soinu txikia aldean. Ez da harritzekoa. Arraroa soinu txikia alboan ez izatea izango litzateke: "Ez dut imajinatzen nire burua soinu txikia jo barik, agian eskuak moztzen badizkirate...". Txiki-txikitatik datorkio musikarekiko zaletasuna: "Gurasoek baloi bat oparitu zidaten, eta nik baloiagaz musika ateratzen nuen". Hori dela-eta, sei urtegaz piano eta solfeo ikasketak hasi zituen. 13 urtegaz, soinu txikiagaz ere hasi zen. Eta 14 urtegaz, bere lehenengo musika-taldea sortu zuen. Di-da. "Auskalo Non erromeria taldea sortu genuen eta oso oroitzen onak ditut, asko ikasi genuen: danak gazteak, bertakoak, eszenatoki handietan jo genuen... anekdotak daude, baina kontatzeko modukoak ez!". Gaur egun, ikasle eta irakasle izateaz gain (Sopelan pandero-jotzaile taldea sortu barri du), Cloverwind taldean ere dihardu: "Euskal eta irlandar folka batzen duen taldea da. Udan Irlandara joan gura dugu jotzera". Baina eszenatokitik baino, ohikoagoa da Gotzon topatzea eskualdeko plaza, taberna edo kaleetan. Triki-poteoak egiteko ezinbesteko bihurtu da: "Ekarpen txiki hau egin ahal badut, ni beti prest! Beste batzuek beste gauza batzuk egiten dituzte, nirea musika sortzea eta giroa alaitzea da!". Argazkia: Asier Mentxaka / Testua: Julen Nafarrate

50 urte dantzan, itxas-argia gidari

Getxoko **Itxas-Argia** dantza taldeak **50 urte beteko** ditu aurten eta **ekitaldi bereziak** antolatu dituzte **merezi** legez **ospatzeko**: erakusketa, **flashmob**, txikien zein **dantzari ohien** dantzaldiak, e.a.

Mende erdia joan da, baina sasoitsu dabil Getxoko Itxas-Argia dantza-taldea: 50 urtean herriz herri euskal dantzak han-hemen zabaltzen. Ez da nolanhiko urteurrena eta merezitako ospakizuna behar du. Horregatik, hainbat ekimen prestatu dituzte 2014 honetarako: hasi Agate Deunagaz eta amaiatu Olentzerogaz, tartean ez dira faltako ohiko dantzaldiak, baita bereziak ere: taldean parte hartu duten dantzariak elkartu gura dituzte-eta dantzaldi batean.

Agate Deuna bezperan ekin zion Itxas-Argiak egitarau bereziari, ohiko kantu-kalejiragaz. Haregaz batera, gainera, euskal jantzi-erakusketa ipiniko dute Algortako Torrene-aretoan otsailaren 26tik martxoaren 16ra. Eta hortik aurrera lotu barik ibiliko dira getxoztarrak:

Inauteri-jaiak egingo dute martxoaren 2an, dantzari ohien bilera martxoaren 9an (maiatzeko dantzaldia prestatzen hasteko), flashmob-a ere egingo dute apirilaren 5ean, txikien jaialdia maiatzaren 3an, dantzari ohien dantzaldi eta bazkaria maiatzaren 10ean, *Getxoko dantzari-taldeak plaza-rena* ekimena ekainaren 26an eta Euskal Herria dantzaldia azaroaren 15ean. Ohi legez, Gabon-jaiak eta Olentzeroren kalejira ere egingo dituzte abendu akabuan. Gainera, bertso-dantza delako ekimena ere prestatzen dabilta.

Itxas-Argia kultur elkarteko hainbat



Paella eguneko dantza-erakustaldia, 1976an

kidek erabaki zuten dantza-taldea sortzea 1964an. Esan eta egin: urtebete berandago dantzatu zuten jendaurrean lehenengo, Paella-lehiaketa egunean.

Euskal Dantzarien Biltzarreko kide da Itxas-Argia, erakundea sortu zenetik; eta

“Euskal jantzi-erakusketa ipiniko dute Algortako Torrene-aretoan”

bere helburua da “euskal folklorea berreskuratzea, bateratzea eta zabaltzea”.

Horregatik, Euskal Herri osoko dantzak erakusten dituzte getxoztarrek, eta aukera emoten die euskal dantzen ikuspegi zabala eta osotua emoteko taularen gainean: berrogeita hamarretik gora dantza daukate errepertorioan eta ehunetik gora

dantzari dira, bost eta 50 urte bitartekoak.

Dantza-talde guztien legez, bertan herrian eta inguruan egiten dituzte erakustaldi gehienak, baina Euskal Herritik kanpo ere dantzatu du Itxas-Argiak, berbarako: Platja d’Aro, Bartzelona, Errioxa, Asturias, Grezia, Portugal, Lituania, Aosta, Ingalaterra, Belgika, Herbehereak, Britainia eta Uruguay. Eta atzera ere hainbat gonbidatu ekarri ditu Getxora, Getxoko Nazioarteko Herrien Jaialdian parte hartzeko: Britainia, Grezia, Polonia, Ingalaterra, Portugal, Galizia, Katalunia, Asturias, Errioxa, Lituania, Italia edota Toledotik etorri dira dantzariak beren ohiturazko dantzak erakustera. Ilea urdinduta, baina lotzeko asmorik ez daukate gure dantzariak: zorionak eta urte askotarako! ○

Info+: www.itxas-argia.com

Antzokirako lau milioi

gehiago, lursail baten salmentatik lortutakoak



Datorren urtean zabaldu gura dute Getxo Antzoki barria

Udal-gobernuak Getxo Antzokiaren proiekturako hiru aurrekontu-aldaketaren barri eman zuten urtarrileko Osoko Bilkuran. Horrenbestez, proiektuari finantzazio handiagoa emongo diote aldaketek: guztira 4.583.505,60 euro.

Ana Helguera Ogasun zinegotziak azaldu zuenez, diruaren zati bat lortu dute Kortziñeko etxebizitza libreak egiteko lursailen salmentatik (2,5 milioi euro); gai-nontzekoa diruzaintzako soberakinetik dator. Zinegotziak dioenez, horrek “ez du proiektuaren kostu orokorraren handitzerik ekarriko”.

Haren iritziz, diru-hornidura horiek beharrezkoak ziren lizitazioaren zain dauden faseak lehiaketan izango duten gehieneko aurrekontua finkatzeko: “Baina egiazko kostua kalkulatzeko, esleipenetan

izandako bajak kendu behar dira; hots, enpresen eskaintzak lizitazioko aurrekontua baino txikiagoak dira beti, eta, hain zuzen, eskaintza horiek dira proiektuaren azkeneko kostua islatzen dutenak”.

Bildu koalizioak, ordea, gogor kritikatu zuten udal-gobernuaren erabakia. Haren iritziz, “onartezina” da udal lurren salmentako dirua Antzokira bideratzea, etxebizitza politika soziala egiteko erabili beharrean: “Oso larria da inposaketaz eta handinahikeriaz egindako proiektuei buruz inolako bideragarritasun-txostenik aurkeztu ez dutenean”.

PPk ere eskatu zuten bideragarritasun-txostena aurkezteko, eta kritikatu zuten “aurrekontua garestitzen joan dela, neurriz gaundiko megaproiektua dela eta udalerrria hipoteka” dezakeela. ○

UDALA, ABORTATZEKO ESKUBIDEAREN ALDE

“Sexu eta ugalketa osasunari, eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko Lege organikoaren aurreproiektuaren aurka” azaldu zen Getxoko Osoko Bilkura. EAJK aurkeztu zuen mozioa, eta Bilduk eta PSEk babestu. Halere, azken bi alderdiek alkarregaz aurkeztu bigarren mozio bat ez zuten babestu Udaltzatzen, gai berberari buruzkoa. Moxioak eskatzen zuten “legegintza aldatzea abortua delitua ez izateko, eta emakumeen sexu eta ugalketa eskubideak berma daitezela”.

Info+: www.getxo.net

PORTU ZAHARRA BARRITZEKO IKERKETA

Algortako Portu Zaharra birgaitzeko, Eusko Jaurlaritzari eskaera egitea aztertzea erabaki du Getxoko Udaltzatzen, aho batez. Era berean, azterketa hori auzotarrakaz batera prestatzea adostu zuten. Portu Zaharra Kultur Ondare izendatuta dago eta, birgaitzeko eremu gisa izendatzea lortuko balute, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlana ahalbidetuko luke, baita zerbitzu-sareak barritzea ere: ur, telefono eta argi-horniketak, sameamendua, e.a.

Info+: www.getxo.net

ON EGIN! ETA DASTATU PINTXORIK ONENAK

Bosgarrenez, GetxOnegin pintxo-lehiaketa prestatzen dabilta Euskara Zerbitzua eta Getxolan. Beraz, lehiaketan parte hartu gura duten tabernekin izena emon behar dute otsailaren 21a baino lehen. Zuzenean egin dezakete Euskara Zerbitzuan (Etxe sorgindua: Basagoiti etorbidea, 20) edo Getxolanen (Areetako Elkartegia: Ogoño, 1). Baina telefonoz edo internet bidez ere egin daiteke: 944 660 0 10/11, gehi@getxo.net edo getxolan@getxo.net. Udalaren webgunean topa daitezke informazio osoa, beharrezko dokumentazioa eta izena emoteko orria. Esatea pintxo-lehiaketa asteburu bitan egingo dela: martxoaren 29an eta 30ean, eta apirilaren 5ean eta 6an.

Info+: www.getxo.net/euskara



**%50 arteko
Beherapenak**

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Pilar Romero > Antzezaleak elkarteko kidea

“Zaila da artelanak erakusteko aretoak topatzea eta gure lokala galeria bihurtu dugu”



Elkarteko hainbat kide lokal-atarian (Arene, 8. Algorta)

1981ean elkartu zen getxoztar artezale talde bat, arteari buruzko kezka partekatze asmoz. Urtebete beranduago sortu zuten Antzezaleak elkartea, ekintza plastikoak eta kulturalak indartu guran. Hainbat tailer eta ikastaro mota sortu zuten, ondoko diziplinak lantzeko: keramika, marrazketa, margolaritza eta grabatua. Izan ere, herrian horrelako eskaintzarik ez zegoen artean. Hainbat lokal izan ostean, gaur egun Arene kalean daude eta, gainera, urrats barri bat emon dute: galeria bihurtu dute lokala, euren lanak zein kanpotarrenak erakusteko.

—Duela 31 urte hasi zen egitasmo hau eta orain erabaki duzue lokala galeria bihurtzea, zer dela-eta?

—Elkartearen historian zehar, momentu batzuetan jende edo kide asko egon gara, baina beste une batzuetan askoz gitxiago. Udalararen diru-laguntza daukagu, baina horrekin ez da ailegatzen danatarako. Elkarteko kideok kuota ordaintzen dugu, baina une jakin batean nahiko gitxi geratu ginen, eta jende asko desanimatuta zegoen. Zuzendaritza-taldeko kideak aldatuz doaz: 9 gara, eta urtero aldatzen dira

4 edo 5. Baina, iaz, 2 bakarrik geratu ziren. Jendea ez zen animatzen eta, azkenean, grabatu-taldeko batzuk sartu ginen zuzendaritzan, ni neu barne. Pentsatu genuen bestelako gauzak egiten hasi behar genuela eta eskaintza zabaldu behar genuela: marrazketa, olioak, grabatua eta keramikaz gainera, zur-lanketa eta esmalteak lantzen hasi gara. Horrekin lortu dugu jende gehiago apuntatzea elkartean, eta kopuru aldetik ez gaude txarto. Baina oso jende gitxi ezagutzen gaitu eta pentsatu genuen beste zerbait egin behar genuela,

adibidez, erakusketak. Baina zaila da aretorik topatzea une honetan: liburutegian urtean astebete bakarrik daukagu eta hori oso gitxi da hainbeste kiderentzat. Kultur Etxe nagusiak obretan daude eta aukera barik geratu ginen. Beraz, gure lokala era-

«Eskaintza zabaldu dugu: zur-lanketa eta esmalteak ere lantzen ditugu»

biltzea erabaki genuen. Txukundu, margotu eta grabatu-erakusketarekin inauguratu barri dugu: gure kideek hiru hamarkadetan egindako grabatu-bilduma izan da. Baina ez gara horretara mugatuko, izan ere, lokala galeria bezala zabaldu nahi dugu. Gure lanekin hasi gara, otsailan olioak erakutsiko ditugu, gero keramika eta marrazketa, eta gero bestelako artisten lanak. Arrastietan ikusi ahalko dira danak, 19:00etatik 21:00etara. Gure galerian erakutsi nahi dutenak jar daitezela gurekin harremanetan: 944 308 926 edo antzezaleak@gmail.com.

—Ez zarete profesionalak, lokala erabil dezakezue zuen lanak egiteko eta ikastaroak ere egiten dituzue, ezta?

—Ikastaroak eta tailerrak egiten ditugu, batez ere arrastietan. Lau gela daukagu, bakoitza diziplina baterako. Baina klase-rik ez dagoenean gelak erabil daitezke norbere lanak egiteko. Esatea une honetan 130 bazkide inguru garelako, gehienak herrikoak.

—Nork parte har dezake eta zer bide jarraitu behar du horretarako?

—Parte hartzeko, lehenik eta behin, Antzezaleak elkarteko bazkide izan behar duzu, kuota ordainduz. Edozein ikastarotan parte har dezakezu, baita gelak erabili ere; hasibarriek ere parte har dezakete. ○

Info+: www.antzezaleak.com

ABRAn bertsoerik onenak Otsailaren 21ean jokatuko da XIII. ABRA-saria, Algortako AzeBarri elkarte barrian



Iazko edizioako parte-hartzaileak eta epaileak

Algortako Bertso-Eskolak antolatzen duen ABRA-saria jokatuko da otsailaren 21ean, gabaz. Euskal Herriko bertsolari gazteen bertso-sariketak XIII. edizioa du aurtengoa eta, azken aldian legez, bertso-afaria aukeratu dute sariketa egiteko formatutzat, aurten AzeBarri kultur elkarte barriaren egoitzan (Euskal Herria, 16).

Iaz Nerea Ibarzabal markinarrak irabazi zuen sariketa eta alboz albo izan zuten Peio Arondo, Gorka Maiz, Iker Gorostearazu, Maddi Sarasua eta Paula Amilburu. Aurten, barriz, beste sei bertsolari gonbidatu dituzte lehira.

Afaria gaueko 21:00etan hasiko da eta

15 euro ordaindu behar da; bertso-saioa, barriz, 22:00etatik aurrera izango da. Afaltzeko lekua alde aurretik gorde behar da eta, horretarako, Algortako Bertso-Eskolagaz harremanetan ipini behar duzu: 605 704 385 telefonora deitu edo albegetxo@gmail.com helbide elektronikora mezua igorri.

Azkenik, esatea ALBEk irabazi duela III. Euskararen Ginkana, Dinbi-Danba batukada taldeagaz bardinduta: 3.000 euroko saria erdibanatu dute beraien proiektuak finantzatzeko. Kutxa Ekoguneak antolatu du lehiaketa Euskaltzaleen Topaguneagaz elkarlanean. ○

BABIA, UMEENTZAKO ANTZERKIA AREETAN

Umeentzako ohiko kultur eskaintzagaz jarraituko dute otsailan Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Izan ere, *Babia* obra antzetzuko du Ganso&Cia taldeak hilaren 23an, domekan. Testurik bako lana da eta 6 urtetik gorako umei zuzenduta dago. Emanaldia 18:00etan hasiko da eta sarrerak daborduko eros daitezke musika-eskolako txarteldegian, bakoitza 5 euroan. “*Haiek Babian bizi dira, ilargian, haien baitan bildurik, guztiz ezezagunak izango bailiran. Kutxaz beteriko biltegi moduko hartan, egun bakoitza aurrekoa eta hurrengoa bezalakoa da. Egun batean telefonoak jotzeari uzten dio eta elkarri begiratzera behartzen ditu*”.

Info+: www.getxo.net

BIZILAGUNAK BIDEOA SAREAN IKUSGAI

Bizilagunak-Aldameneko familia izeneko bideoa ikusgai dago interneten. Bizilagunak ekimena azaroan egin zen hainbat herritan, horien artean Getxon; Egizu taldeak, Etorikinen Plataformak eta Udalak antolatuta zuten. Bertoko eta atzerriko familiek alkarregaz bazkaldu zuten, elkar ezagutzeko: 16 bazkaritan parte hartu zuten 32 familiak, batzuk bertakoak, besteak Filipinas, Peru, Bolibia, Senegal, Argentina, Ekuador edota Errumaniatik etorriak.

Info+: youtu.be/gkWu2Jzf-gg

NEGUKO BIDAIA, KONTZERTU KLASIKOAK

Neguko Bidaia izeneko kontzertu-solasaldien zikloaren seigarren edizioa garatzen ari da Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Oraindino kontzertu bi ikusteko aukera daukazu: otsailaren 15ean, Jazz-Rock Fusion. Raul Vera Group taldeak joko du; zikloa amaitzeko, barriz, Pia Rojas eta Marian Hermosilla pianisten emanaldia izango da hilaren 22an, hori ere zapatuan. Kontzertuak eskolako entzun-aretoan izango dira eta 19:30ean hasiko dira. Sartzeko 5 euro ordaindu behar da.

Info+: www.getxo.net

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Felix Mugurutz > euskaltzaina

“Ohiturazko inauterietatik mozorroa mantentzen da: beste nortasun bat irudikatze maskara ipintzea”

Urteko sasoi honi lotutako euskal usadioez jardun zuen Felix Mugurutz Leioako berbalagunen aurrean, urtarril akabuan. Gabonak eta Aste Santua bitartean hainbat ospakizun daukagu, danak elkarri lotuta nolabait.

—Gabonetatik 40 egunera eta Aste Santua baino 40 egun lehenago; eta erdiko tartean hainbat ospakizun, zergatik?

—Muga hori, 40 egunekoa, beti agertzen da, bai. Gabonetatik 40 egunera da Kandelario Eguna, otsailaren 2an. Udabarriko errituen hasiera. Otsailaren 3an San Blas da eta 5ean Agate Deuna. Bestalde, Aste Santua eta 40 egun atzera bada garizuma, eta hor amaitzen dira inauteriak. Horregatik hasten da penitentzia garaia horretan: inauterietan egindako gehiegikeriak garbitu behar ditugu Kristoren heriotzaren aurrean. Hori da kristautasunak egin duena, baina badira aurretiko errito zaharragoak, eta garbiketa egiten genuen inauteri-ostean.

—Lotuta daude ohitura horiek denak?

—Udabarriko ohiturak dira: lurra ernatzeko erritoak egiten ziren, erlijioak berera egokitu du. Sasoi honetan natura berpizten hasten da: Kandelario Egunean hasten da belarra handitzen, eta horrekin lotuta



Mugurutz Sakoneta kiroldegian, hitzaldia hasi baino lehenago

daude inauteriak eta dana. Agate Deunan esaten da lurra esnatzeko ematen direla makilkadak. Lurrak produzitzen hasi behar du, janaria behar dugu-eta.

—Bezperan egiten ditugu errituak, ez ospakizun-egunean; zergatik?

—Inportanteak dira egunak, baina errituak egiten dira bezperan: gaueko izakiek erasotzen zuten eta, horren aurrean, babes bereziak behar ziren, errituak egiten ziren. —Inauterietan okerrak eta gaiztakeriak

egitea erritu horiekaz lotua dago?

—Hori da beste mundukoek egingo lituzketen gauzak, adibidez lamiek egingo lituzketenak guk egitea; transgrezioa. Irudikatzen dugu bizitza txarra eta ona, eta pasatzen gara astakeria handienak egitetik beste muturrera. Gaur egun, ordea, inauteri modernoak ditugu, mantentzen den bakarra mozorroa da: beste baten nortasuna irudikatze maskara ipini behar da, aurpegia aldatu behar da. ○

Kulturaren maratilan

Hiru antzerki eta beste hainbat ikuskizun otsailaren 20tik 23ra, **Kultur Leioan**



Gabrielen lekua ikuskizuna taularatuko dute hilaren 23an

2014ko Kultur Maratila askotariko eskaintza dakar otsail honetan; euskarazko arte eszenikoan puntako lanak ikusiko dira Kultur Leioan, hilaren 20tik 23ra. Artedramak eta Kultur Leioak antolatzen dute Kultur Maratila.

Zikloa inauguratzeko antzerkia aukeratu dute: *Konpota* lana antzeztuko du Dxusturi Teatroa taldeak otsailaren 20an, 20:30ean. Emanaldirako sarrera 8 eurokoa izango da eta auditorium aretoan antzeztuko dute.

Hilaren 21ean, barriz, emanaldi bi izango dira: *Nan* dantza-ikuskizuna (Ertza-Asier Zabaleta) 20:30ean, eta *Transhumantzia* kontzertua 22:00etan (Mixel Etxekopar eta Francois Rosse).

Lehen auditorium aretoan izango da eta sarrerak 10 euro balio du; bigarrena erakusketa-gelan izango da eta sarrerak 6 euro balio du.

Zapatuko emanaldiek ere ordutegi, agertoki eta prezio berak izango dituzte: *Zazpi aldiz elur* antzeztuko du Tanttakak 20:30ean, eta *Pepino ustelak* Hozkailuan taldeak, 22:00etan.

Maratilarik luxuzko amaiera emoteko, barriz, *Gabrielen lekua* ikuskizuna taularatuko dute otsailaren 23an auditoriumen, 20:30ean; sartzeko 10 euro ordaindu behar da. Gogoratzea bonoak ere salgai daudela: emanaldi guztiak ikusi ahalko dituzu 30 euroen truke. ○

Info+: www.artedrama.com

2014KO AURREKONTUA ONARTU DU UDALAK

EAJK eta EBK osatzen duten udal-gobernuak proposatu aurrekontuak onartu zituzten urtarrileko Osoko Bilkuran: PSE abstenitu zen eta Bilduk eta PPK aurka bozkatu zuten. 2014ko udal-aurrekontua 37,5 milioi eurokoa izango da, iazkoa baino %1,19 handiagoa. Udal-gobernuaren proposamenari PSEK egindako 16 emendakin onartu zituzten; Bilduk aurkeztu 80etatik eta PPK aurkeztu 6etatik, barriz, bat ere ez zuten onartu.

Info+: www.leioa.net

JAVIER BERGIA KULTUR LEIOAN, HILAREN 14AN

Javier Bergia madrildar abeslariak bisitatuko du Leioa otsailaren 14an: Kultur Leioan eskainiko du kontzertua, Ambigu aretoan. Kantautoreak 12 disko ditu eta bere abestiak “ironiatik pasiora, erromantizismotik umoreira, urruntzetik konpromisora doaz; mundu arrazonagarria aldarrikatzen jarraitzen du. Malenkonía jariatzen duen soinu unibertsoa da, genero guztiak naturaltasunez hartzen dituena”. Emanaldia 22:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euro balio du. Bere musikari buruz gehiago jakin gura baduzu, ondoko webgunera jo dezakezu: www.javierbergia.com.

Info+: www.kulturleioa.com

SARIAK MAITASUN BERBA EDERRENTZAT

Balendin Deunaren egunean banatuko dituzte Leioako Maitasun Gutunen XV. Lehiaketako sariak, otsailaren 14an. Kultur Leioako hitzaldi-aretoan egingo dute ekitaldia, 19:00etan. Sariak emoteaz gainera, irabazi duten gutunak irakurriko dituzte: egileen ahotik entzun ahalko dira maitasun hitzik ederrenak, gozoenak, samingarrienak, lizunenak, e.a. Gogoratzea hainbat kategoria dagoela lehiaketa honetan, adinaren arabera banatuta, eta euskaraz zein gaztelaniaz.

Info+: www.kulturleioa.com

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guzietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargarritzaileak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com

LUBERRI
Basolanak SL
Lorezaintza

Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Mikel Garaizabal Pildain > enologo eta sommelieria

“Erronka da kaleko jendea eta gazteak erakartzea ardoaren mundu aberats honetara”

Ardo dastaketa-saioa gidatu zuen Mikel Garaizabalek Erandion otsailaren 6an, Berbots elkarteak antolatuta. Sommelier eta enologo, jatorri-deituradun ardoak herritarrengana hurbiltzeko Eusko Jaurlaritzaren programa batean parte hartzen ari da oraingoa.

—Zein ardo mota dastatu dituzue?

—Beno, aurrez saio hauen asmoa da erki-degoko ardoak ezagutaraztea kaleko jendearen artean. Ibilbide enologikoa egiten dugu jatorri-deiturak aztertuz: hasten gara Getaria, Araba eta Bizkaiko txakolinekin, eta amaitzen dugu Arabako Errioxako ardo birekin. Gainera, Idiazabal gazta dastatzen dugu ardoekin batera. Era oso atseginean eta pedagogikoan ikasten ditugu jatorri-deitura bakoitzaren ezaugarriak eta dastatze-teknikak. Ez dugu hitz teknikorik erabiltzen, uste dugulako ardo mundua, askotan, oso elitista dela.

—Desberdintasun handiak daude txakolinaren artean?

—Jatorri-deituren barnean ere aldeak daude: kontua da ardo egiteko bodega bakoitzak erabiltzen duen modua. Txakolina kontzeptu bezala, baina gero nahiko desberdinak dira, adibidez, Getariakoa eta Bikaikoa. Dastaketa hauekin adierazi nahi dugu zelako aberastasuna daukagun.



Info+: www.catarvino.com

—Ardoa erostera joan eta galtzen gara askotan, zer egin dezakegu?


—Egokiena da denda espezializatu batera joatea eta galdetzea. Ez uste ardo garestiago denik horietan. Aholkatuko dizute zein den ardorik egokiena zure nahiaren arabera. Ez da asko ordaindu behar ardo ona edateko, badaude ardo batzuk 6 eurotik behera gozamen asko ematen dutenak. Kaleko jendeak kontsumitzen du ardoa eta erakarri behar ditugu.

—Beraz, ardo edaten ikasten da?

—Bai, bestelako produktu batzuk bezala. Gazteak hezi eta erakarri behar ditugu, neurrizko kontsumoa bultzatuz, oso berandu hasten gara-eta ardo edaten: 30 urterekin edo. Lehen tranpolina kalimotxo izan daiteke, zergatik ez? Baina ondo eginda. Iker dezagun eta, behin hezita, orduan utziko dute kalimotxo. Hori da erronka: erakartzea mundu aberats honetara. Izan ere, askotan, gazteek uste dute oso serio eta tekniko dela, zaharren kontua. Mito horrekin apurtu behar dugu. ○

Kafkaren aulkia

irakurraldi bertsotua taularatuko dute
Altzagako azoka zaharrea, otsailaren 20an



Info+: www.lanku.com

Literatura eta bertsolaritzak bat egiten dute ikuskizun barri batean: *Kafkaren aulkia*. Bertsolari bi eta idazle bat elkartuko dira oholtza gainean, Pello Ramirez txeloren eta akordeoiaren doinuen gainean jarduteko. Erandion otsailaren 20an ikusi ahalko da emaitza: Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariek, eta Oier Guillan idazleak parte hartuko dute. Hilaren 20ko emanaldia Altzagako azoka zaharrea izango da, 20:00etan.

Hitza da ikuskizunaren ardatza: “*hitz idatzia eta kantatua, neurtua eta laua, bat-batekoa eta patxadaz hausnartutakoa*”. Izan ere, bertsolariek bat-batean jardungo

dute eta idazleak sortutako narrazioan txertatuko dituzte euren bertsoak, hark agindu ahala.

Beraz, saioa idazleak gidatuko du, berak hautatutako genero, molde eta tonuan egingo du-eta narrazioa; askotarikoa izan daiteke: poema-errezitaldia, ipuina, hitzaldi literarioa, nobela bateko pasarte hautatua, e.a. Bertsolariek, beren aldetik, pertsonaia literarioaren ahotik eta euren ahots propioetik kantatuko dute, “*narrazioari koloreak, atmosferak eta kanpo-begiradak gehituz*”.

Sarrera doakoa izango da, beraz aitziarik ez dago huts egiteko. ○

HABANERA-JAIALDIA OTSAILAREN 22AN

Erandioko XI. Habanera-Jaialdia otsailaren 22an izango da, Altzagako kiroldegian eta 20:00etatik aurrera. Asturietako Coral Polifonica Piloñesa taldea gonbidatu dute aurten eta, ohi egez, Erandioko Mendibaiarte abesbatzazag partekatuko du kontzertua. Sarrera doakoa izango da, baina gonbidapena behar da. Horiek eskuratu ahalko dira kiroldegiko sarreran.

Info+: www.erandio.net

AUTODEFENTSA FEMINISTA IKASTAROA

Oraindino badaukazu aukera Berdintasun-Zerbitzuak antolatutako autodefentsa feminista ikastaroetan parte hartzeko. Ikastaro bi emongo dituzte: lehena izango da hilaren 14an eta 15ean, Astrabudua kiroldegiko Tatami gelan; bigarrena, barriz, 21ean eta 22an, Altzaga kiroldegiko gela morean. Barikuan 17:00etatik 20:00etara izango da eta zapatuan 10:00etatik 19:00etara (atsedenaldia egingo da bazkaltzeko). Isabel Bernal Gallastegik gidatuko ditu saioak. Izena emateko: Behargintza, Udal Gazte Bulegoa eta Astrabuduko Udal Bulegoan, edo berdintasuna@erandioko-udala.net helbidera mezua bidaliz.

Info+: 944 156 163

IPUIN-KONTAKETAK LIBURUTEGIETAN

Erandioko liburutegiek ipuin-kontakteta zikloa abiatu dute barriro ere. Otsailetik aurrera, gainera, Erandiogoiko txikiak ere gozatu ahalko dute ipuinak. Hil honetarako hiru emanaldi iragarri dituzte liburutegiek: otsailaren 12an Altzagan, 19an Erandiogoikoan eta 26an Astrabuduan. Hil honetako ipuina Ines Bengoak kontaktuko du eta ondokoa da izenburua: Margo-ipuinak. Emanaldiak 4 eta 8 urte bitarteko umeei zuzenduta daude eta 18:00etan hasiko dira. Esatea guztiak izango direla euskaraz.

Info+: www.erandiokoeskuzerbitzua.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko

Cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BEZ barne



SOPELA DA IZEN OFIZIALA

Sopela da herriaren izen ofiziala, iragan urtarilaren 29an Bizkaiko Batzar Nagusiek horrela onartu ostean. Udalerriaren izena aldatzeko azken urratsa izan zen eta, beraz, Sopelana zena Sopela izango da oraindik aurrera. Izena aldatzeko prozedura 2012ko azaroan abiatu zuen alkateak, euskaltzaindiari eskatuz udalerriko izen ofizialagaz lotura zeukaten txostenak. 2013ko urtarilaren 21ean, Euskara, Hezkuntza eta Kultura Batzordean aurkeztu zuen aldaketarako proposamena. Otsailean, barriz, Sopelako udalbatzak izena aldatzea onartu zuen. Hori ospatzeko, Ruper Ordorikak kontzertua emongo du martxoaren 16an Kurtzio kultur etxean, doan.

Info+: www.sopelana.net

AZKEN ATXILOTUEN ESKUBIDEEI ERRESPECTUA ESKATU DU UDALAK

“Euskal Preso Politikoaren Kolektiboaren bitartekaritzagaz lotuta espetxeratutako zortzi pertsonen eskubideak errespetatzeko” eta “ebazpen judiziala berehala emateko” eskatu du Udalak, eta uste du horrelako “jarduerak oztopoa direla gure herriak bizi duen testuinguru politikoan”. Era berean, herritarrei eskatu die lanean jarraitzeko “herritar horien eskubideen alde, areago testuinguru politiko honetan, denok egin behar baitugu lan bakea eraikitzeko”.

Info+: www.sopelana.net

PLAZA BELTZA, ORAIN INTERNETEN ERE

Plaza Beltza kultur elkarteak bloga zabaldu du interneten. Bere jarduerak eta ideiak plazaratzeko bitartekoa izango da: “Agenda argitaratu eta gure iritzi subertsiboak jakitera emango ditugu”. 2006ko udan sortu zen Plaza Beltza eta urtetan garatu du bere jarduera Akilino Arriola kaleko lokalean. Gaur egun lokal barri baten bila dabilta.

Info+: plazabeltzainfo.wordpress.com

Hiru udal-langileri txostena Udalak hiru txosten zabaldu ditu eta ELAk “zigor-politika” alboratzeko exijitu dio



Sopelako udaletxea

Bilduk “arduragabekeriaz jokatzeko” duela eta “ELAko afiliatuak diziplina-espeditenteak zabalduz jazartzen” dituela salatu du sindikatuak: “Epaitegiek Udaltzaingoaren azpiofizial eragilearen izendapena baliogabe jo zutenetik alkateak bost langileri espeditentea ireki die, denak ELAko afiliatuak”.

ELAren iritziz, sindikatua kaltetu gura du gobernu-taldeak: “Dekretu bidez gobernatzen du, ELAga daukan obesioak bultzatuta”. Horrenbestez, “zigor-politika alde batera uzteko, langileak errespetatzeko eta herritarren alde go-

bernatzeko” exijitu dio ELAk Bilduri.

Udal-gobernuak, sindikatuari erantzunez, jakinarazi du oraingoz hiru langileri zabaldu diela txostena eta “helburu bakarra” izan dela “zerbitzu publikoagaz bateragarriak ez diren jokoerak zigortzea”. Jokaerok sindikalgentzagaz zerikusirik ez dutela gaineratu du: “Areago, zerbitzu publikoa defendatzen duen sindikalgentzaren aurkakoak dira”. Gainera, “eskubideen errespetuan eta zerbitzu publikoak hobetzeko ahaleginean oinarritutako lanbarremanen alde” egingo duela adierazi du udal-gobernuak. ○

Aidee Ayarza > gizarte-hezitzailea eta aktorea

“Artea norberaren garapenerako eta talde-lanerako tresna oso indartsua da”



Info+: [facebook.com/gizaarte.kolektiboa](https://www.facebook.com/gizaarte.kolektiboa)

Sakelako telefonoetarako Mintzatu aplikazioaren iragarkia egin du Aidee Ayarza aktoreak, Azkue Fundazioaren enkarguz. Baina beste gauza askotan dabil sopeloztarra, antzerkiagaz eta besteak gizarte-hezkuntzagaz lotuta.

—Mintzatu-ren iragarkia egin duzu, baina ez duzu lehen aktore lana, ezta?

—Ez, 17 urtegar parte hartu nuen lehenengo film labur batean, baina betidanik oso gustuko dut antzerkia. Dantza, musika, antzerkia... beti parte hartu dut arte eszenikoetan, amateur. Orain emakume talde batek nabil eta antzerkia erabiltzen dugu aldarrikapen modura: abortatzeko eskubidea, gudanako biolentziarik ez edota ekonomikoki duintasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatzeke. Bestalde, EDE fundazioan nabil boluntario, begirale-ikastaroak eta formazioa emoten. Zehazki, adierazpen sailean nabil eta irakasten dugu musika, antzerkia edota dantza zelan erabili tres-

na gisa aisialdi taldeetan. Guretzat arteak, altxorra dira arteak.

—Baina beste proiektu bat abiatu duzula jakin dugu, zerikusirik dauka aipatu duzun horregaz danagaz?

—Sail horretako hiru lagunek abiatu dugu Gizaarte-egitasmoa eta adierazpena lantzen dugu: Gardotza Burgoak arte ederrak ikasi du, Eider Ibarondo arkitekto eta eszenografoa da, eta ni antzerki eta dantza munduan nabil. Guretzat ametsa da pentsatzea honetaz bizi gaitezkeela. «Gizaarte egitasmoa sortu dugu hiru lagunek eta adierazpena lantzen dugu»

baina dagoeneko emon ditugu ikastaro batzuk. Adibidez, eskola batean talde-sentimendua landu dugu, arte-tekniken bidez. Arte-terapia ere ikasten dut, eta niretzat garrantzitsua da hezkuntza eta mundu soziala artearekin lotzea. Artea norberaren garapenerako eta talde-lanera-ko tresna oso indartsua da. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Aleman

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

Hiriak
Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!
Bentaxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DANTZA-ESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Berangoko Udalak dantza-eskola sortu du. Klaseak Berango Merana eskola publikoko gimnasioan izango dira. Horretan parte hartzeko interesa dutenek izena eman beharko dute alde aurretik. Txanda bi egongo dira: astelehen eta eguaztenetan, 17:20etik 18:40era; eta martitzen eta eguenetan 17:20etik 19:30era. Klaseak Ana Rosa Tercero eta Veronica Van Horenbeke emango dituzte. Prezioa 25 eurokoa izango da hileron Berangon erroldatutakoentzat.

Info+: danzacdart.wordpress.com
Kontaktua: 944 170 140 eta 627 472 621

OTSAILAK 23, SABELIZTUN SAIOA UMEENTZAT

Hilaren 23an, domekaz, etxeko txikienek Elvi sabeliztunaren ikuskizunagaz gozatzeko aukera izango dute. Hitzordua arrastiko 18:00etan izango dute, Berango Antzokian. Hala, bertaratzen diren umeek Elviren eta Mattin, Lester eta Xixi panpinen abenturaz gozatzeko aukera izango dute.

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritzaren orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regaraizar@euskalnet.net
www.garaizar.biz
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Eztizen Miranda > "Egiaren hazia" dokumentalaren zuzendaria

"Errepresioa oso gordina izan da, eta ehunka pertsona desagertuta daude"



Info+: www.hegoa.ehu.es eta www.aranzadi-zientziak.org

Eztizen Miranda berangoztarrak "Egiaren hazia" dokumentala zuzendu du. Horretan, 1976ko otsailaren 12an errepresioak hil zituen zortzi zibil beduinoen eta haien senitartekoen historia azaltzen da.

—Nondik dator dokumental hori egiteko ideia?

—Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuak urteak daramatza Mendebaldeko Sahararen egoera ikertzen eta indarrez desagertarazitako pertsonen inguruko informazioa biltzen. Hori horrela, hilobiak aurkitzeko aukera ikustean Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera pertsona horiei buruzko egiaren bila joan ginen Mendebaldeko Sahara.

—Zerk eron zaituzte Mendebaldeko Saharako egoera salatzerat?

—Salaketa baino, egiaren aldarrikapena da, giza-eskubideen defentsaren aldarrikapena. Indarrezko desagertaritze krimenek ez dute inoiz preskribitzen, pertsona non dagoen ezagutu arte edota ho-

rren aztarnak topatu eta senitartekoei bueltatu arte. Kasu honetan, giza-eskubideen urraketa larria egon da: alde bate-tik, Marokok urteak daramatza desagertuei buruzko informazio faltsua helarazten, eta ikerketa honekin agerian utzi

«Bakarrik egia ezagututa egon daiteke justizia eta erreparazioa»

ditugu gezur horiek; bestetik, giza-eskubiderik oinarritzkoena ere urratu dute, bizitzaren aurkako eraso. Horrek guztiak eskatzen du, egiaz gain, justizia eta erreparazioaren aldeko lana.

—Egon da erantzunik ateratako ondorioen aurrean?

—Marokok argitaratu zuen senitartekoei harremanetan jarriko zela, baina ez da horrelakorik gertatu. Nazioarteko instituzioak ere jakinaren gainean daude, baita Espainiar estatua ere, baina erantzun finkorik ez, momentuz. Erantzun sendo bakarra Mendebaldeko Saharako herritarrena izan da. ○

Maribe Legarreta > Emakumeen Hitzza elkarte

"Berdintasunaren alde lan egiteko arduragaz sortu ginen"



Goierriko Ander Deuna Aretoan edo Jubilatuen Etxean batzen dira normalean

Barrikako Emakumeen Hitzza elkarteak hainbat tailer eta kurtso eskaintzen ditu udalerrian. 2007an sortu zen, eta ordu-tik, bertan parte hartzen duten emakumeak etengabe aritu dira lanean berdintasunaren alde.

—Nondik dator Barrikan emakume-elkarte bat sortzeko ideia?

—Emakume talde baten kezken ondorioz sortu genuen elkarte, berdintasunaren aldeko kontzientziazioa bultzatzeko eta gizartearen aldaketa burutzeko asmoz. Egungo gizartearen emakumeok behar dugun lekua berreskuratu behar dugu, historikoki gurea dena. Horretarako, berdintasuna, askatasuna, elkartasuna, errespetua eta justizia bezalako kontzeptuek benetakoak izan behar dute.

—Tailerrak antolatzeaz gainera, zer gehiago egiten duzue?

—Jendeari formakuntza eskaintzen diogu; berdintasunaren, bizi-testamentuaren eta udal-hirigintzaren inguruko kurtsoak eginez, besteak beste.

—Nortzuk parte hartzen duzue?

—Emakumeok. Orokorrean Barrikakoak gara, baina Uribe Kostako beste herrietako hainbatek ere parte hartzen dute.

—Norbaitek Emakumeen Hitzza elkartean parte hartu gura badu zer bete behar du?

—Ez da ezer berezirik behar. Parte hartzeko, elkar laguntzeko eta berdintasunaren aldeko lana egiteko gogo handia izatea bakarrik.

«Barrikan jarduera gehien antolatzen dituen elkarteak gara»

—Zeintzuk dira azken aldian antolatu dituzuen tailerrak?

—Gaur egun, martxan ditugunak honakoak dira: patchwork, puntua, zumba, antzerkia, panderoa, euskal dantzak eta ingelesa. Hala ere, beste hainbat tailer ere antolatzen ditugu. ○

Info+: www.emakumeenhitzza.tk

uk **zure**
publizitatea
hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

UKnatura
SATEK PORTUGALSTE
ESQUELA SUPERIOR DE MANUTEN PORTUGALSTE
MARIA DEAS DE HARO, 68
48960 PORTUGALSTE (BIKALA)

2013-2014 KURSOA

- * BIOERAKUNTZA TAILERRAK
- * ARTISAU XABOIAK eta KOSMETIKOAK
- * BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- * ENERGIJA BERRIZTARERAK
- * HERRAZI KAYAK

eta askoz gehiago...

www.uknatura.org 692705471 / 646742241



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriari igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor Ianda 4, Sopela
Tel.: 946026779

ALDIZKARI BARRIA JAIO DA PLENTZIAN

Plentziako Kandelaria Kultur Elkarteak "antzinako Plasztia de Butronetik etorkizuneko Plentziari begiratzeko dion" doako aldizkari digitala sortu du: *Plasztia*. Otsailaren 2an kaleratu zuten lehenengo alea, eta horren bitartez, irakurleek herriaren antzinako kontakizunen eta datuen barri izango dute, besteak beste. Aldizkaria sortzeko orduan bi alderdi izango dituzte kontuan, euskararen presentzia eta herritarren aportazioak. Argitalpenak ez du publizitaterik eta gura duenak edozer gauza bidal dezake aldizkarian publikatu dezaten. Urtero lau ale kaleratzea aurreikusitako dute, eta euren *facebook* orrialdean egongo da ikusgai.

Info+: [facebook.com/plasztia](https://www.facebook.com/plasztia)

ESKOLA ZAHARRA IZATETIK GAZTELEKURA

Aurrera doaz Urdulizko Eleizalde kalean dagoen plazako eskola zaharra gazteleku bihurtzeko lanak. Espazio barriak hiru solairu izango ditu eta gaztelekuak lehenengoa hartuko du; gainerakoak herriko elkarteek erabiliko dituzte euren zereginetarako. Gaztelekuak lau gune handi izango ditu: bat, teknologiaz erlazionatutako gauzetarako; beste bat, mahai-jokoetarako eta irakurketarako; beste bat, taldekako jokoetarako; eta azkenengoa, erabilera anitzeko gune bat. Gainera, eraikinak eskalatzeko boulderra ere izango du aurreko fatxadan. Urdulizko Udalak 514.000 euro (BEZ barne) inbertitu ditu proiektu horretan.

Mankomunitatea

Etxebizitzetan **ohitura jasangarriagoak** hartzeko **ikastaroak** antolatu dituzte



Ekogunek bultzatutako programak lau saio izango ditu

Uribe Kostako auzokideek euren etxebizitzetan ohitura jasangarriak praktikan jartzeko aukera izango dute hemendik aurrera, Ekogunek bultzatutako *Etxe berdeak* izeneko programari esker.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak abian jarriko du proiektua. Eki-men horrek hainbat erronka gainditzea proposatzen die parte hartzen dutenei: CO2 igorpenak murriztea eta ur zein energia gutxiago kontsumitzea. Hori guztia lortzeko, izena ematen dutenek ordu eta erdiko doako lau tailerretan parte hartu ahal izango dute (martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean). Horietan, etxeko ekologiari buruzko aholkuak partekatuko dituzte.

Lehenengo saioan etxeko energia aurrezteko zer-nolako pausoak eman behar diren ikasiko dute parte hartzaileek. Bigarren, ura nola aurreztu; hirugarren, mugikortasun iraunkorra; eta lau garrenean, nola murriztu hondakin-so-

rrera. Aipatu ekimenak jendearen ohiturak aldatu nahi ditu, neurri errazak aplikatuz, ezer inbertitu barik eta ongizatea murriztu barik.

«Doako ikastaro honetan parte hartzen dutenek etxeko fakturan gastuak murriztea lortuko dute»

Proiektuan parte hartzen dutenek baliabide kolektiboak modu jasangarriagoan erabiltzen ikasiko dute, etxeko energiaren faktura murrizteagaz batera. Halaber, ohitura jasangarriak gauzatzen laguntzeko elementuak dituen "kit eraginkorra" jasoko dute.

Otsailean Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak ekimenaren aurkezpenak egingo ditu udalez udal. Horietan, interesatuek informazio guztia jasoko dute. ○

Info+: www.uribekosta.org
e-posta: etxeberdeak@uribekosta.org

Ots. 10 - Ots. 26

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Amada Rios San Pedoren margoak**. Otsailaren 19ra arte. Algortako kultur etxean.

► **Momentos (Felix Lareki)**. Otsailaren 23ra arte. Algortako Torre-aretoan.

PLENTZIA

► **Teresa Beitiaren margolanak**. Otsailaren 28ra arte. Goñi Portalen.

ANTZERKIA

BERANGO

► **La casa de Bernarda Alba**. Otsailak 15, 19:00etan. Berango Antzokian. 1 euro.

► **Elvi sabeliztuna**. Otsailak 23, 18:00etan. Antzokian. 3 euro.

SOPELA

► **Humor platoniko**. Otsailak 15, 20:00etan. Kurtzio kultur etxean. 3 euro.

ERANDIO

► **Reserva comanche**. Otsailak 16, 19:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

► **Kafkaren aulkia**. Otsailak 20, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

GETXO

► **Babia**. Otsailak 23, 18:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 5 euro.

LEIOA

► **Kultur Maratila**. Otsailaren 20tik 23ra. Kultur Leioan. Bonoa: 30 euro.

GORLIZ

► **Ipuin-kontaketa (ingelesez)**. Otsailak 22, 18:30etan. Sertutxenean.



Hiztunpolisa liburuari buruz jardungo da

► Hitzaldia

Jon Sarasua Irakurzaleen Txokoan, Leioan

Hiztunpolisa: Euskaltasunaren norabideaz apunteak Jon Sarasuaren liburua hizpide izango dute Uribe Kostako Irakurzaleen txokoan, otsailaren 26an. Oraingoan Leioan ipini dute hitzordua, Ongi Etorri topalekuan (Iturrubide, 7), 19:00etan. "Klase politikoak eta euskal mundu intelektual rol hartu duten idazleek ideologia modernoetatik darabilte hizkuntzaren gaia. Bada marko kontzeptual bat atzea bueltaka: eskubideak, berdintasuna legearen aurrean, aurrerapena, askatasuna, demokrazia, diskriminaziorik eza, gehiengoak eta gutxiengoak, ongizatea, e.a. Marko hori oso zabala da eta pentsaezina iruditu liteke beste marko posible bat egon daitekeenik".

• Non: Ongi Etorri topalekuan • Noiz: otsailaren 26an, 19:00etan

ZINEMA

SOPELA

► **Blue Valentine**. Otsailak 13, 18:00etan. Kultur etxean. Doan.

► **Nocturna: abentura magiko bat**. Otsailak 16, 18:00etan. Kultur etxean. Doan.

GETXO

► **Gazta zati bat. Gure esku dago ekimenak antolatuta**. Otsailak 13, 20:00etan. Faturako hitzaldi-aretoa.

► **El ladrón de sueños**. Otsailak 16, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,10 euro.

► **De tal padre, tal hijo**. Otsailak 21, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.

ERANDIO

► **Lluvia de albondigas 2**. Otsailak 15, 17:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

► **Walter Mitty**. Otsailak 15, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

URDULIZ

► **Ayer no termina nunca**. Otsailak 14, 19:00etan. Kultur etxean. Doan.

► **Caminando entre dinosaurios**. Otsailak 15, 18:00etan. Kultur etxean. 3,5 euro.

► **Ernest & Celestine**. Otsailak 22, 18:00etan. Kultur etxean. 3,5 euro.

BERANGO

► **Monstruos university**. Otsailak 16, 18:00etan. Antzokian. Doan.

► **Una canción para Marion**. Otsailak 22, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

MUSIKA

GETXO

► **Daniel Merino**. Otsailak 13, 20:00etan. Romoko Billares tabernan. Doan.

► **Sam&Jam**. Otsailak 20, 20:00etan. Getxoko Utopian gunean.

ERANDIO

► **Habanera-jaialdia**. Otsailak 22, 20:00etan. Altzagako kiroldegian. Gonbidapenagaz.

► **Dantzaldia**. Otsailak 23, 17:30etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

BESTEAK

BARRIKA

► **Talo-tailerra**. Otsailak 14, 18:30etan. Gure Ixerdia txokoan.

SOPELA

► **Duatloia**. Otsailak 15, 16:00etan. Udaletxe-plazan.

GORLIZ

► **Etxe berdeak programaren aurkezpena**. Otsailak 19, 19:00etan. Sertutxenean.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



A zer denboralea!

Handiak baino, olatu erraldoiak etorri ziren, parean topatzen zutena txikitzeko asmoz, indartsu. Otsaileko itsasoa oldartu zitzaigun, olatu erraldoien surf-txapelketako uhinak ere txiki haien aldean; irudi bortitzak utzi zituen euskal kostaldean eta Uribe Kostan. Baina ekaitzaren ostean badator barealdia eta biharamunak eder eta nasai argitu zuen: eguzkia ere atera zen denboralearen ondorioak ikustera.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





San Inazio

Algortan, 1894an

Getxoko gaur egungo udaletxetik Ezkerraldea eskualdera begira ipini eta itsasadarraren amaiera ikusten da irudi ikusgarri honetan, San Inazio eliza erdi-erdian; inguruan etxe gitxi oraindino. Argazkiaren ezkerrean ageri da Areetako hondartza, artean Zugatzarteko pasealekua eraiki barik zegoela. Eta hondoan Portugalete eta Santurtziko zati bat, horietan ere eraikin gitxi zegoela, gaur egungoagaz alderatuta. Eta horixe da irudi honetako alderik ikusgarriena, hain zuzen ere: Industrializazioaren hastapena bizi zuten garai hartan; handik aurrera erabat aldatuz joan zen gure geografia. Gezurra badirudi ere, zelan hazi diren herriak hain denbora gitxian!

[berbetan]

Bere burua sopoloztartzat aitortzen duen puntako bodyboardlari Eunate Agirrek (Bilbo, 1982) lehiatzeari utziko ziola iragarri zuen urte hasieran. Bodyboardeko Munduko txapela jantzita, bere ametsa bete zuela, elkarrizketatu genuen, 2011n. Oraingon, ostera, erabaki latzaren ondorioz batu gara beragaz. 2005 geroztik zebilen bodyboardaren elitean, 2007an Kirolaren Euskadi Saria jaso zuen, 2011n Bizkaiko Kirolari Onenarena, bost aldiz izan da Europako txapeldun, birritan munduko txapeldunorde, 29 urtegaraz Munduko txapeldun... Halere, babesle eta diru-laguntza faltaren sufrimendua jasan, bizi behar izan du; “neke psikologikoak”, gogo faltak eraginda ere erabaki du lehia profesionala uztea laster 32 urte beteko dituen kirolariak.

Eunate Agirre

Lehiako azken olatuko puntatik

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Eliteko kirola, profesional-mailan lehiatzeari uztea erabaki duzu. Erabaki latza, luze eta sakon hausnartutakoa...

—Munduko txapelketa irabazi eta gero, azkenean, beharbada nire gogo apur bat txikitu zen; eta hurrengo denboraldia nahiko ona izan bazen ere, babesleen erantzuna ez zen nik espero bezain ona izan... Gerora, niretzat, dena zaildu egin zen; eta horri guztiari buelta emotea oso zail egin zitzaidan. Ez nengoen hain gogotsu, babesleen babesa ez zen horrenbestekoa izan, eta azkenean hurrengo urtea halamoduzkoa izan zen, kili-kolo ibili nintzen, bai... Neure burua ezin kokatuta, diru-laguntzak behera egin zutela, eta ezin ahaztu hori ere hain dela garrantzitsua. Munduko lehiaketa irabazi eta hurrengo urtean, hau da 2012an, 3. postuan geratu nintzen, nire ustez nahiko ona izan zen. Orduan, neure buruari proposatu nion 2013an ere ondo jardun behar

nuela, neukan dana emon behar nuela. Txapelketa baino hilabete lehenago joan nintzen Hawaiira, prestatzera, entrenatzera, eta ez dakit zergatik, baina pasa den urtean den-dena oso txarto irten zitzaidan. Azkenean, jada, ez nengoen hor... Zurrumuruak hasi ziren, entzuten zen, beharbada ez neukala burua txapelketan,

“Horrek denak nekatu nau... Eta txapelketetan oso bakarrik sentitu naiz; munduan zehar nabil, bai, baina bakarrik”

ez nengoela horretan hain jarrita, ez nengola gogotsu... Eta emaitza txarra izanez gero, bada babesleen erantzuna ere... Orduantxe, esan zuten *“ezin dizugu zuri diru-laguntza gehiagorik eman...”*. Eta horietan izan dira, gehienbat, txapelketak uzteko erabakian eragin dutenak. —Maila horretan lehiatzeko garrantzi-

tsuak baino ezinbestekoagoak dira babesle eta diru-laguntza horiek, ezta? Horiek lortzeko ahalegina ere, kasu honetan, zure, kirolariaren, egin beharra da? —Nik kirol “txiki” batean dihardut, eta orduan bai, nire kontura egin beharrekoak eta nire ardura dira horiek guztiak. Esan behar dut, nire kasuan, hasieratik,

zorte on handia izan dudala: babesle onak izan ditut. Halere, beti-beti diru-laguntzak ez dira izan hain onak. Beharbada, hor goi-mailan nengilenean, bost bat urte horiek, bakarrik, izan dira onak; gainontzekoak, goranzko bidean pausoz pauso egindakoak... Azkenean, oso garrantzitsuak dira hor goian ibiltzeko;



nire kasuan urrutirako bidaia ugari izan ditudalako, eta beste hainbat kontu ere kudeatu behar ditudalako. Gaur egun, facebooka, nire web-orria, eta irudi kontua dela-eta egin beharreko beste mila kontu egin eta kudeatu behar ditut, nire kabuz, bai. Nik neuk eta nire kontura egin behar ditut gauza horiek guztiak: beste kirolariek zer egiten duten eta lantzen dute ikusi eta aztertu, hemendik gauzaren bat hartu, handik beste zera hori, ikusi eta ikasi, nire eskema osatu e.a. Ez bakarrik uretara sartu eta kito, beste gauza batzuk ere egin behar ditut.

—Gordin eta zuzen galdetuta: babesleek zuzen konfiantza barririo jarriz gero, eta diru-laguntzaz bultzatuz gero, lehiatzen jarraituko zenuke edo goi-mailako lehiaketara itzuliko zinateke?

—Ez dakit. Iaz oso antzeko egoera bizi izan nuen, hori bera gertatu zitzaidan: baneuzkan babesleak, konfiantza eskaini zidaten, baina neu ez nengoen hain ondo; eta emaitzak ez ziren izan nire gustukoak. Azkenean, behar edo lantzat hartu nuen, beti izan da lana, baina... Pasa den urtean lan soila edo zen eta... Ez neukan beste zera hori, beste gogo hori... Gehiago zen “hau egin behar dut, txapelketetan parte hartu behar dut, hara behar dut... eta aurrera!”. Baina, nire barne-gogoa ez zegoen maila berean, esandakoa, eta horren isla izan dira emaitzak... Gogotsu ibiliz gero, babesleak ere bultzatzaileago... Gogo barik ibiliz gero, gauzak ez dira ondo ateratzen, ezta? Beraz, beno, nire ustez ni ere nekatuta nabilela izan da pisuzko arrazoi bat, hori izan da arazo handiena.

—Zerk eragin dizu neke hori, zeri egozten diozu? Benetan maite duzun bodyboarda uzteko? Gainera puntakoen artean egonda...

—Bodyboardak maiteminduta nauka, bai; baina, hor goi-mailan egotea ez da nik gustuko ditudan gauzak bakarrik egitea. Beste gauza piloa egin behar ditut, egunero dudana denbora guzti-guztia entrenatzeko sakrifikatu behar dut, zelan-

baiteko irudi publikoa ere zaindu behar dut, guztientzat pozik eta irribarrez agertu behar dut... Azkenean, horrek guztiak ere apur bat nekatu nau. Horrez gainera, txapelketetan oso bakarrik sentitu naiz. Munduan zehar nabil, bai, baina oso bakarrik. Bakarkako kirola da, nolabait oso independenteki jarduten dugun kirola, eta beharbada, aurretik esandako guztiari

“(Laguntza-babesleak) Mundu osoan ibili naiz ikurriña eskuan... merezi duen garrantzia eman beharko liokete”

hori ere gehituz gero, bada niretzat hori guztia dena batera oso nekagarria izan da, nekatu egin nau. Bestalde, ezin dut esan gabe utzi, azken denboraldietan, txapelketetako olatuak niretzat ez zirela izan hain onak; nire ikuspuntutik, mundu mailako zirkuitua izateko, olatuak ez dira onak izan... Gustuko nituen olatuak izan balira, bada agian txapelketa beste modu batera jokatu nukeen. Baina ez zen horrela izan, are gehiago batzuetan aukeratu zituzten olatuak desastre hutsa izan ziren, eta hala ezin da; hori ere ez dut batera gustuko izan!

—Alde batetik, askori bururatu zaion galdera, hauxe: bodyboardlaria baino

“Gauza asko ditut pentsatzeko; lasaitu... gero erabakiak hartu. Asko gustatuko litzaidake ikastea”

surflaria izan bazina, aukera gehiago eta handiagoak?

—Nire kasuan, behintzat, bodyboardean jardun dut, azken finean goi-mailan ibili naiz, eta ez dut pentsatu surfa egin izan banu zer gertatuko zatekeen... Nik nireari jarraitu diot, nire bidea egin dut. Beste kirol batzuei begiratuz gero, azkenean, egia bada ere... Kontu hauetan konparazioak egitea txarra dela uste dut. Ez dakit, saskibaloian diharduenak beste kirol ba-

tzuei begiratzen badie, zer esango luke?! Azken finean, nik bodyboardean babesleak eduki ditut; badira babeslerik ez daukaten kirolak ere... Kontu horri dagokio- la ez daukat kexarik, konforme nago.

—Beste alde batetik, beste askoren buruan beste hau: eliteko bodyboardlari gizonezkoa izan balitz, antzerako egoera-erabakia litzateke?

—Horren adibide gurean dugu, Sopelan David Perez eta Aritz dauzkagu, arlo honetan, bodyboardean txapeldun izandakoak, eta agian batzuetan nik baino babesle gutxiago izan dituzte. Azken finean, nire arloan, onenen artean ibili naiz, baina beno, ezin izan didate gehiago... Nik banekien zer zegoen; goi-mailara heldu baino lehenago, ezagutzen nuen zein zen egoera. Halere, izan ditut babesleak, eskuratu ditut diru-laguntzak, jendearen babesa ere sentitu dut... Horrenbestez, zentzu horretan, ez dut kexatzerik.

—Aurrerantzean, atzetik datozenei, harrobiari begira, eta egoera hobetze aldera edo aukera handiagoak izan ditza-

ten, zer aldarrikatuko zenuke?

—Orokorrean, orain beste leku honetatik eta bizitakoak eta gero, nire kexa: ikus dezakegu nola krisia egonda ere gehienbat futbolak ez duen hainbeste sufritzen. Esan nahi dudana da, kirol “txiki” haue- tan, nirea bezalako kasuetan, munduko txapeldun bat dugunean hemen, munduko txapeldun euskaldun bat dugunean, nik uste, hobeto sentitzea merezi nuela, momentu batzuetan behintzat, hobeto

tratatu beharko liratekeela, gehien bat diru-laguntza eta babesle aldetik. Mundu osoan ibili naiz ikurriña eskuan, eta nire ustez hori oso garrantzitsua dela, merezi duen garrantzia eman beharko lioketela, eta genioke. Emakumea izanik, munduko txapeldun izanik, ni izan ez banintz ere, halako egoeran edo mailan dagoen edonor nire ustez bultzatu egin beharko

“Talentua baino, garrantzitsuena lana dela uste dut; egunero lantzea, lantzea, lantzea...”

genuek, eta indarrez bultzatu, gainera! Geure enbaxadore dira-eta! Nire iritiz, halako jendeak meritu eta merezimendu handia du.

—Benetan eta ziurtasun osoz, itzultzeko atea betiko itxi duzu?

—Ummm... Bai, bai, itxita dago. Erabakia hartu eta gero ez dut atzera egingo. Egia da, txapelketa batzuetan parte hartuko dudala, jakina! Esaterako, uda partean Sintrako (Portugal) txapelketa izaten dugu, munduko zirkuituko proba, abuztu amaieran izan ohi da, eta Sintra nahiko hurbil dagoenez esango nuke lehiatzera joango naizela, bai; horretarako gogotsu nabil. Horretan lehiatzeko gogoia badaukat, baina ez hor goian, ez beti rankingari begira, puntuei begira, hau behar dut bestea egin behar dut etengabe pentsatzen, hara edo honako bidaia luzeak... Uffff! Horretarako ez daukat gogorik!

Benetan. Erabakia hartuta daukat, eta orain aurrera begira!

—Erabaki nahiko irmoa, beraz. Publiko egin zenuenetik hurbilekoek eta zaleek zelan hartu dute? Zer helarazi dizute?

—Bada, polita izan dela esango nuke. Beharbada, agur esatea, inoiz ez da erraza izaten... Niretzat oso zaila izan da, baina beno, besteengandik jasotako erantzuna

oso polita izan da. Oso garrantzitsuak izan dira nire ibilbide osoan: irabazi nuen jende asko izan nuen alboan, baina agurrean ere bai. Familia, lagunak, hurbilekoak, prentsa, jendea inguruan, alboan sentitu izan ditut agurrean ere, eta benetan hori ere oso garrantzitsua izan da niretzat.

—Eta aurrera begira, zer ikusten duzu eta zer hauteman gurako zenuke? Zer asmo duzu?

—Asmo argirik oraindik ez... Gauza piloa egin nahiko nituzke, gauza piloa darabilzkit buruan, baina zehazki ezer argirik ez... Hori da galdera! Badator (bodyboardean) eta badabil beste neska bat, eta berarekin, alde hori lantzea ere gustatuko litzaidake... Baina, badakit, momentu honetan, nire burua ez dagoela horretarako, eta uste dut denbora behar dudala horretara jartzeko, denborak bere bidea egin

behar duela uste dut... Gustatuko litzaidakeela? Bai. Baina halakoak emon emon behar dira, gertatu behar dute... Eta jan ere egin behar dut! Gauza asko ditut pentsatzeko; lasaitu... eta gero erabakiak hartu. Hala ere, asko gustatuko litzaidake ikastea, oraindik zer ez jakin arren, ikasketetan murgildu nahiko nuke. Bidaiekin eta ez nuen horretarako denborarik eduki, eta orain badaukat; ate hori irekita daukat, eta beno, gustatuko litzaidake, baina ikusiko dugu! Esan bezala, ez daukat ezer zehatzik buruan, eta ez dut ezer erabaki.

—Zale bezala bada ere, Sopelako hondartzako olatuak uztea ezta pentsatu ere, ezta?

—Bai! Beti bezala! Alde horretatik ez da ezer aldatuko. Egunero egongo naiz, beno agian egunero-egunero ez, edo ez hainbestetan, baina nire bizimodu normalarekin jarraituko dut: surfatzen beti bezala, eta Sopelan izango da!

—Peña Txurikoak? Zelan gogoratzen dituzu hastapen haiek? Eta aurrerantzean harreman hori zelakoa izango da?

—Bai. Ondo! Beraiengatik hasi nintzen txapelketetan parte hartzen; nire lehenengo txapelketa Peña Txuriko taldearekin izan zen. Beraz, eurekiko harremana oso polita da. Eta betiko kontuak: klubak klubak dira, eta azkenean batzuk gehiago egoten dira, beste batzuk ez hainbeste... Baina azkenean izpiritua edo hortxe dago! Nire kasuan, harreman polita daukat Peña Txurikoekin. ○

Aholkuren bat

—Horrenbestez, duzun esperientziatik, bizitako sasoi onetatik zein garai txarrotatik, harrobikoei zein aholku emongo zenieke?

—Gauza piloa daude esateko... Txapelketetan ibili nahi badute, hor goi-goian, makilari gogor eutsi eta azkeneko mi-

nutura arte duten den-dena emateko. Talentua baino, garrantzitsuena lana dela uste dut; egunero lantzea, lantzea, lantzea... Eta batzuetan ametsak egikaritzen dira!

—Eta “kontuz!” ibili beharrekoak zeintzuk izango lirateke?

—Beharbada, ikasteari ez uztea. Eta hori baino gehiago, agian, euren ardurak eta erantzukizunak ez uztea. Alde batetik, surfetan jardutea, baina beste- tik, gainontzekoa ez uztea; dena egiteko gai gara, badugu denbora besteetarako ere, gauza biak egin daitezke.






Garaikidetasuna zelatan

Bilboko eraikin modernoakaz jolasean jardun du Martin Presumido Szymczak-ek (Las Palmas, Kanaria Handia, 1980), eraikinen garaikidetasunari eta arkitekturari beste ikuspuntu batetik heldu gura izan dio lehen Barakaldon eta orain Portugaleten bizi den argazkilariak. Bilboko arkitekturaren ikuspuntu modernoa eskaini gura du irudion egileak, kontrapikatu eta dualismoen bitartez hiri barriztatua erakutsi, oroitzapenari azken kinu bat eginez.

Info+: www.mpsfoto.es

Argazkiak: **Martin Presumido Szymczak**





Balea-ehiza Uribe Kostan

Balea-ehiza jarduera ekonomiko garrantzitsua izan da Plentzian

Hasieran kostaldetik hurbil ehizatzen bazituzten ere, Plentziako ontziok balea-ontziak egin eta tokiko arrantzaleak Ternua aldera joan zirela uste da. Horren adibide izan liteke lurralde horietan Placentia izeneko toki bat aurkitu izana.

Arrantza izan da historikoki Plentziako auzokideen jarduera ekonomikorik zaharrena. Hala ziurtatzen du herri horren 1299ko hiri-gutunak: *“et terminos para ballenas matar del agua que corre por medio de Barquero fasta Portugalete”*. Hau da, dokumentu horrek baleak ehizatzeo pribilegioa ematen zien Plentziako arrantzaleei, Bakiotik Portugaletera arteko itsas-eremuan. David Crestelo Plasentia de Butron Museoko arduradunaren arabera, baimen hori lortu baino lehen jarduera horretan aritu behar izan zuten Plentziako arrantzaleek.

Plentzia inguruko muinoetan talaiek jartzen zituzten itsasaldea zaintzeko, eta behin balea ikusita, portura abisua eman eta arrantzaleek txalupak hartzen zituzten. Orduan, balea arpoiaz jotzeko lasterketa hasten zen. Izan ere, arpoiaz balea jotzen zuen lehendabizikoak eskubideak zituen animalia salmentan. Horrek guztiak liskar handiak sortu zituen herrien artean.

Uste denaren arabera, Euskal Herriko kostaldean balea ugari zeuden, eta lehorretan zirenak kontsumitzen hasi ziren. Cresteloren ustez, animalia horiek aberastasun handia sortzen zutela ikusita, horiek ehizateari ekin zioten. *“Hasiera batean kostaldetik hurbil ehizatzen zituzten, baina gero eta eskasagoak zirenean, itsasora irteten*



Plentziako ontziok balea-ontziak egiten zituzten

hasi ziren. Irlandara ailegatu ziren, ondoren Groenlandiara eta azkenik Ternuara”, azaldu du. Pablo Gardeazabal AMBAR itsas-faunaren ikerketa eta babeserako boluntzarreta elkarteko kidearen arabera,

Hasieran baleak kostaldetik hurbil ehizatzen zituzten, txalupetan

balea osorik aprobeztatzen zen: koipea, hezurak, mingaina, okela eta bizarra, besteak beste. Horrek guztiak aberastasun handia sortzen zuen, eta horren merkataritza arautzen hasi ziren.

San Pedro kofradia

Plentzian San Pedroko kofradia zegoen, eta horretan Gorliz, Plentzia, Lemoiz eta Barrikako arrantzaleak zeuden. Horiek

itsas-merkataritza arautzen zuten eta ontzi-kontuetan agintzen zuten, besteak beste. Crestelok azaldu duenez, Plentzia hiribildua zen, eta horregatik pribilegioak zituen merkatuak egiteko eta aginduak emateko orduan.

Portua Plentzian zegoen, baina itsasontzien tripulazioak inguruko herrietako auzokideek osatzen zituzten. *“Ez dago dudarik, Plentziakoa portu oso garrantzitsua izan zen. Ontzi ikaragarriak egiten ziren bertan, kokapena oso ona zen, ontziolak zeuden, eta inguruko egurra kalitate oso onekoa zen. Hainbat ikerketaren arabera, hemengo egurragaz egindako ontzi bikingoak aurkitu dira”,* jakinarazi du Crestelok.

Euskal arrantzaleak Ternuara heldu zirenean, bertan baleak ehizatu, materiala tratatu, eta bueltatu egiten ziren. Hain izan zen handia lortutako etekina, non



Matxitxako zein Villano lurmuturretatik zetazeo ugari ikus daitezke

Londres euskal olio argizatzen zuten, AMBARekoak jakinarazi duenez.

Euskaldunak Ternuatik kanpo

Ondoren, Utrecheko itunaren ondorioz, Ingalaterrak eta Herbehereak euskaldunak kanporatu zituzten Ternuatik, *“bertan aberastasun ikaragarria zegoelako”,* Gardeazabalen esanetan. Hala ere, horiek ez zituzten euskal arrantzaleek zuten teknologia eta teknika baleak ehizatzeo. Hori dela-eta, hainbat dokumentuk azaltzen dute Herbeheretako eta Ingalaterra-

Ternuako Placentia tokia Plentziako arrantzaleek fundatu zutela uste da

ko itsasontziek euskal arrantzaleak eta arpoilariak kontratatzen zituztela ehizatzen irakatsi ziezaieten, *“haiak ziren adituak”*.

Euskal arrantzaleek euren aztarnak utzi dituzte Ternua aldean. Tokiko toponimia oso esanguratsua da: adibidez, Placentia eta Placentia Bay izeneko lekuak aurki daitezke; eta Plentziako herritar askoren arabera, Ternuako toki horiek hiribilduko antzinako arrantzaleek fundatu

miliatara 200 metroko sakonera duen itsasoa izatetik 2.000 metrotara hel gaitzeko”. Horren ondorioz, itsas-korronteak ezpondagaz talka egin eta nutriente guztiak gainazaleratu egiten dira. Hala, zetazeoak hara joaten dira jatera, eta ondorioz, teleskopio batez balea eta izurde ugari ikus

Katxaloteak, zetazeo arruntak eta izurdeak ikus daitezke euskal kostaldean

daitezke Matxitxako zein Villano lurmuturretatik.

Zetazeoen lehorretzekak

Ez da ezohikoa animalia horietakoren bat gure kostaldean lehorretzea, izurdeak batez ere. AMBAReko boluntarioek lehorretze-sarea osatu dute egoera horren aurrean egin beharrekoak egiteko eta antolatzeo. *“Lehenik eta behin, gertaeraren tokira bertaraten gara, animalia bizirik edo hilik dagoen ikuskatzen dugu, eta horren aurrean, agintari eskudunei gomendioak ematen dizkiegu”,* azaldu du Gardeazabalek. ◻

Info+: www.ambarcetaceos.com

Izurde ugari lehorretzen dira Uribe Kostako kostaldean





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarria



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70 84

[zinema]

Fant-en lehiatzeko prest?

Bilboko Zinemaldi Fantastikora **lanak aurkezteko epea** martxoaren 15a arte



XX. ekitaldia beteko du aurten Fant-ek

Fant zinemaldian lehiatze aldera filmak bidaltzeko epea martxoaren 15a arte zabalik dago. Zinema fantastikoa ardatz duen lehiaketa-jaialdia maiatzaren 9tik 16ra egingo da Bizkaiko hiriburuan, eta XX. ekitaldia izango du aurtengoa. Zerbait sailetan banatutako lehiaketako sariak dagoeneko ezagutarazi dituzte, esaterako: *“Sail Ofizialean film luze onenari (egilearentzat), gidoi onenari eta zuzendaritzaz berriztatzailearenari sariak banatuko dira; FANT labor sailean, epaimahaiak Film Labor onena (3.000 euro) eta Euskal Film Labor onena (2.000 euro) sarituko ditu; eta genero fantastikoan gero eta entzute handiagoa lortzen dabilen*

norbanako edo erakundeari Fantrobria saria emango zaio”. Lanak bidaltzeko Fant-en webgunean dagoen izen-emote agiria bete beharko dute parte-hartzaileek, eta lana Movibeta Festival webgunearen bidez bidal dezakete, helbide honetara: Colon de Larreategi 37, 4. eskuma Bilbo.

Horrez gainera, zinemaldiaren baitan, eta horregaz alkarlanean, Nontzebe-

«Maiatzaren 9tik 16ra egingo da zinemaldia; Notzefilm gaua, 10ean»

ri kultur atariak Nontzefilmak On-line Zine eta Animaziozko Laburmetraia Lehiaketa antolatzen du. Horretan parte hartzeko lanak helarazteko epea (webgunearen bidez; azpian helbidea) martxoaren 28an amaituko da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, *“aurtengo edizioan berrikuntzak daude sarietan, izan ere sarien kopurua gutxitzen da, baina sari bakoitzaren zenbatekoak gora egiten du; hala, Film onenari ematen zaion Nontzefilmak Saria 1.500 eurokoa izango da, Animaziozko Film onenak saria 1.500 euro jasoko ditu, eta Euskaraz egindako Film onenak (zinea edo animaziozkoa bada ere) 2.000 euro”*. Nontzefilmak Gaua maiatzaren 10ean egingo dute. ○

Info+: www.fantbilbao.net
www.nontzefilmak.com

Jatorria aldarri

The original Wailers taldearen kontzertua hilaren 23an Bilboko Kafe Antzokian



Al Anderson (gitarra), Chet Samuels (ahotsa) eta Tyrone Downie-k (teklatura) osatzen dute gaur egun taldea

Bob Marley-ren (Jamaika, 1945- AEB, 1981) taldekide ohien The Original Wailers taldearen kontzertua iragarri du Bilboko Kafe Antzokiko otsailerako egitarauak. Hitzordua hilaren 23rako, domeka, ipini dute, iluntzeko 20:00etan (ordu erdi lehenago zabalduko da aretoa) eta sarrerak (aurretiaz 15 euro; egunean 18 euro) dagoeneko salgai daude.

Bob Marley Day featuring The Original Wailers goiburuzagaz aurkeztutako emanaldia, eta gaur egun Al Anderson (gitarra), Chet Samuels (ahotsa eta gitara), Tyrone Downie (teklatura), Howard Smith (bate-

ria) eta Rohan Reid-ek (baxua) osatzen duten taldearen Europako biraren barruan kokatzen da. The Wailers (1964–1974) hasieran, gerora Bob Marley & The Wailers (1974–1981), eta azken horietako hainbat gaur The Original Wailers taldera batuta, reggae eta sustraian jatorriari lotutako historiaren lekuko bihurtzen dute zalea emanaldi bakoitzeko. Taldeak *Miracle* EP-a (MRG) plazaratu zuen orain urte bi, eta Grammy sarietako izendatu zuten urte berean. Gehiago gura duenak Bilbon du zita... ○

Info+: www.theoriginalwailers.com
www.kafeantzokia.com

diskoa > travellin' brothers

Magnolia Route du izenburu Travellin' Brothers Blues Band-aren seigarren lanak. Hilaren 20an aurkeztuko dute Bilboko Campos Eliseos Antzokian. Gaztelupeko Hotsak zigiluagaz banatuko dute, Kaki Arkarazo, Alain Sancho eta Aitor Cañibano-gaz Garate Estudioetan grabatutako lana. Swing eta jazz, 30 eta 40. hamarkadako Big Band-en estiloa, Mississippiko delatko soinuak, New Orleansko jai-girokoak, Nashvilleeko ukitu countryak, Memphiseko Stax Studioetako soul eta gospel doinuak, New Yorkeko Big Banden mambo kutsua eta zelan ez Chicagoko bluesa... Azken finean, Rythm&Blues sakone-rako bidaia proposatzen dute leiozartrek.

Info+: travellinbrothers.com

kontzertua > EH sukarra

Iragan apirillean kaleratutako *Uhinak* (Oihuka, 2013) zortzigarren lanaren aurkezpen-biran Bizkaiko hiriburuko kafe-antzokian eskainiko du zuzeneko Eibarko taldeak. Lehenengo diskoa aurkeztu zutenetik 21 urte pasa diren, eta jatorrizko kantak bitzen zituen azken lana plazaratu zutenetik hamaika urte eta gero, ohiko rock gogorreko eta punk melodikoko doinuak osatutako 10 kanta bildu dituzte lan barri horretara; hardcorearen, funkyaren edota poparen ukituak ere ez ditu falta, eta, orainoan ere, balada bati ere egin diote lekua. Mikel Gorosabel “Norton”-en musika eta Asier Serranoren letrak dira kantuen oinarri. Emanaldia hilaren 20an, eguena, izango da, 21:30ean, eta sarrerak alde zurretik 6€ balio du.


diskoak

Beste Hogei
Jabier Muguruza
Resistencia



Kantautore-ibilaldiko 20. urteurrenaren beste 20 eskatuz kaleratu du Irungo musikariak 12. lana. Halere, diskoa ez du osatu orain arteko kanta onen bildumagaz, 10 abesti barri eskaintzen ditu; horietan bidelagun ditu Mikel Azpiroz (pianoa), Mireia Otzerinjuregi (ahotsa), J. Tapia (trikitixa), Chris Case (trontpetu), eta Xabier Zeberio (biolina). Hilaren 13an Kafe Antzokian joko du.

Silex
Oreka Tx
Autoekoizpena



Harkaitz Martinez de San Vicente eta Mikel Ugarte txalapartarien hirugarren lana da hau. Hartziko txalaparta du ardatz, eta “talde izaera islatzen duen lehenengo” dela azaldu dute, izan ere Mixel Ducau, Iñigo Eguia eta Juan Jose Otxandorena musikariak izan dituzte lagun, eta Kalakan eta Alos Quartet-eko Xabier Zeberio ere parte hartu dute.

Aneika Ara
Aneika Ara
Hotsak



Herri-musikan edo folklorean jardundako Zigor Iturbe (gitarra eta ahotsa), Argibel Euba (bateria) eta Alex Lopez (baxua) musikariak osatzen duten talde bizkaitarraren lehenengo diskoa da. Diskoetxetik adierazi dutenez, ordubetik luzeko 12 kantuko lanean, rock klasiko, psikodelia eta 90eko hamarkadako indie-rocka buztartzen dira, slowcore estiloz ere lotu dute.

uk **adi lagun!**
Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!
*(sinatuta eta gehienez 330 berba)

uk
zure
publizitatea
hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Getxoko Andra Mari
 Gasolindegia

Txartel hau
 aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
 izango duzu zure
 autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
 Tf. 94 430 15 00
 (15 eguneko epemuga)

I
Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
 AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
 Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Ipuin-lehiaketa

Urteroko omenezko lehiaketaz gainera, Bilbo aldean **Arestirekiko** zorrak kitatzen

XXXI. ekitaldia beteko du aurten Bilboko Udalak antolatzen duen Gabriel Aresti Ipuin-Lehiaketak. Gabriel Aresti Segurola (Bilbo, 1933- 1975) idazle eta poetaren omenezko lehiaketara edozeinek aurkez ditzake ipuinak, hori bai, euskaraz ala gaztelaniaz idatzitakoak izan beharko dute; eta ez dute itzulpenik onartuko. Ohi den legez, lanek jatorrizkoak, argitaratu bakoak eta saritu bakoak izan behar dute. Ez dute gairik zehaztu eta gehienez 15 orrialdeko luzera izan beharko du, espazio bikoitzean idatzita, eta alde bakarretik. Lanak bidaltzeko azken eguna martxoaren 31 izango da, eta posta arruntez (Bilboko Udala, Kultura eta Hezkuntza Saila, Venezuela plaza 2, 6. solairua,

«Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 31 izango da»

48001) edo udal web-gunearen bidez (helbidea amaieran) helarazi ahaliko dira. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, “3.500 euro gordineko sari bana eta 1.750 euro gordineko accesit bina egongo dira”.

Bestalde, ezin aipatu barik utzi, bizi izan balitz (41 urte gaz zendu zen) iazko urrian 80 urte beteko zituzkeela poeta bil-



Gabriel Aresti Segurola (Bilbo, 1933-1975)

botarrak, eta hari horri tiraka eta harekiko zorrak kendu asmoz, hainbat ekimen prestatu direla, besteak beste: Gabriel Aresti eta Zenbat gara elkarteek *Gabrielen lekua* ikuskaria oholtzaratu dute, edo Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatuta egunotan egiten dabilzan Klasikoen Irakurraldia Arriaga Antzokian *Harri eta Herri* lanaren irakurketa; izan ere, Arestik lan hori argitaratu zuenetik 50 urte joan dira eta horren albotik, liburuaren gaineko hitzaldi zikloa ere egunotan (hilak 11-13; 19:30ean) izaten ari da, Euskaltzaindiaren Bilboko Plaza Barriko egoitzan. ○

Info+: www.bilbao.net/arestilehiaketa

liburuak



Kartografien eta...
 Amaia Iturbide
 Maiatz

Kartografien eta mikrobio narratiboen artean bere hamairugarren lanean 45 ipuin batu ditu idazle eta margolari bilbotarrak. Periferiako ikuspuntutik, bazterrekotasuna du horietako askotan berbagai, bere esanetan “surrealismo orekatuaren” uretan dabilen heinean.



Lunatiokoak. Zientziaren...
 Egoitz Etxebeste
 Elhuyar

“Zientziaren irakurketa argigarria, arina eta atsegina bultzatzen” duen Z izpiak zientziadibulgazioko bildumaren 5.a da *Lunatiokoak. Zientziaren bidezidorretatik*. Helduei begirako lanean 40 zientzialariren, nozibait “lunatikotzat jotako”en, lan, aurkikuntza, bitxikerien barri emoten da.

[kirola]

Lehia handitzeko prest

Lankidetzaren hitzarmena izenpetu dute Raspas eta Portugalete **arraun-taldeek**



Raspas eta Portugaleteko presidentek sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena

Joan den abenduaren 22an Aretako Raspas del Embarcadero Arraun-Elkartek lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen Portugaleteko San Nikolas klubagaz. Iñigo Olondo Raspas elkartearen zuzendaritzako kideak jakinarazi duenez, “*bi elkarteek ez dute harreman aparta izan historian zehar, hala ere, Portugaleteko arraun-elkartearen harrobi emankorra osatzen daben arraunlariari irtenbidea ematearen beharretik sortu da erabakia*”.

Akordioak lau urteko iraupena izango du, 2017ko amaiera artekoa, eta horren arabera, Raspas Portugaletekoaren talde hitzartu izango da. Hitzarmena beste lau urtez luza daiteke, bi elkarteek hala nahi badute.

Adostutakoaren arabera, Portugaleteko arduradun teknikoek bi elkarteetako senior taldeak ikuskatuko dituzte, eta bi elkarteetako arduradun teknikoek denboraldia finkatuko dute, entrenamendu-programak eta horien jarraipena planifikatuz. Hitzarmena programa baten barruan ko-

katuta dagoela adierazi du Olondok, eta horri esker, “*epe laburrean Raspasek KAE 1 ligara igotzeko aukera izango du*”.

Horrez gainera, hitzarmenak eragina izango du taldearen jardueran. Portugaleteko arraunlariak utziko dizkio Raspasi; hala, talde handiagoa izango du Getxoko tal-

«Hitzarmenak lau urteko iraupena du, baina beste lau urtez luza daiteke»

deak. Ezkerraldekoak gainera laguntza logistikoa eta zerbitzu medikoa eskaini eta bere azpiegiturak utziko dizkio. “*Horri esker, Raspas arrauneko hainbat modalitateetan lehiatu ahal izango da, traineruetan batez ere*”, Olondok jakinarazi duenez.

Getxoko elkartearen kideek erabakia “*bikain*” hartu dutela adierazi du zuzendaritzako kideak: “*Bizkaian bi klubuen artean adosten den maila honetako lehenengo hitzarmena da. Esperientzia positiboa, interesgarria eta itzaropentsua da, eta horren aurrean oso gogotsu daude danak*”. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol
moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
 48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Ane Ibarra Muro > Sunnyvale (Kalifornia-AEB)

“Bost minutura badago ere, autoa hartzen dute”

Ikasketak amaitu eta esperientzia barria bizi guran joan da Ane Ibarra Muro areetarra Kaliforniara; bere kabuz eta bakarrik. Au Pair in America lan-programa ezagutu eta ez zuen pentsatu: umeak oso gustuko ditu eta hara joateko aukera erakargarria izan da. Sunnyvale hirian dago, Kalifornia iparraldean, eta hainbat gauza egiteko aukera dauka: ikasteko, lan egiteko soldata baten truke eta bertako familia bategaz bizitzeko! Gainera, soberan daukan denbora bidaiatzeko eta jende barria ezagutzeko erabiliko du.



Kaliforniako Silicon Valley aldean bizi da, Sunnyvale hirian. Urtarrilaren 11n heldu zen eta urtebete egongo da, horrela denbora izango du esperientzia danak ezagutzeko eta hizkuntza barneratzeko.

Zer bisitatu eta zer ez galdu

Badiaren eremu eder batean dago Sunnyvale eta eguraldia epela eta eguzkitsua da. Erraz topa daiteke munduko edozein tokitako jendea: txinatar, indiar, mexikar, korear, e.a. Izan ere, munduko enpresarik garrantzitsuenetakoak daude bertan: Google, Yahoo, Apple, Facebook, e.a. Eta enpresa horietan mundu osoko ingeniariak daude. Lekua oso lasaia da, filmetako auzoak bezalakoa.

Zer jan eta edan

Gastronomiari buruz gitxi esan daiteke. Ibarra bizi den etxean, batez ere, korear janaria jaten dute, arbasoak koreako-


ak dituzte-eta. Ez du ikusi Mc Donalds asko, agian bi: bata San Franciscon, bestea bere hirian. Janari osasuntsua modan dago; beraz, janari organikoa saltzen duten denda nahikotxo dago.

Kontuz!

Gidatzean! Eroen modura gidatzen dute, eta legeak eta seinaleak nahiko desberdinak dira Euskal Herrikoakaz alderatuta. Hori bai, auto gehienak automatikoak dira eta oso erraz gidatzen dira, horregatik gauza gehiago eroan ditzakete eskuartein: kafea, janaria, e.a.

Harritzeko modukoa

Bere etxetik eskolara bost minutu badaude ere autoa hartzen dute umea erateko: denetarako erabiltzen dute, bizikleta gitxi dago. Bestalde, lehenago esan bezala, umeakaz parkera joatean, zaila egiten da estatubatuar bat topatzea. ○



Nor da

Nongoa
Areetakoa

Adina
26 urte

Zertan dabil
Esperientzia barria bizi asmoz joan da, eta Au pair lanetan dabil

Ikasketak
Enpresa-Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziaduna

Noiz arte
Duela hilabete iritsi zen eta urtebete lotuko da

Non dago

Lurraldea
Kaliforniako Errepublika, Ameriketako Estatu Batuetan (423.970 kilometro koadro eta 37.253.956 biztanle)

Lurraldeko hiriburua
Sacramento, herrialdearen erdialdean

Hiria
Sunnyvale, Kalifornia iparraldean (58.765 kilometro koadro, 140.081 milioi biztanle)

Hizkuntzak
Ingelesa (biztanleen %57,4), Gaztelania (%28,5), Txinera (%2,8) eta Filipinetako Tatalog hizkuntza (%2,2)

Dirua
Dolarra

Eduardo San Andres

Aurrerantzean, Jentilkoba atalagaz txandakatuz, Zientzia atala abiatu dugu. Bertan agertuko diren testuak Eduardo San Andres matematika irakasle sopoloztarrak idatziko ditu; hilean behin, zientziaren eremu luze-zabalean murgilduko gaitu.

Uribe Kostako kate-maila

Orain dela 150.000 urte Homo Sapiens talde bat, gauaren iluntasunean, ikaratuta, goseak jota, soinu beldurgarri artean, suaren inguruan alkarrekin eserita zeuden. Batek bat-batean burua altxatu eta, Afrikako zeru distiratsuari begira, galdera bat bururatu zitzaion: zer ete dira argi puntutxo dardarti horiek?

Orain dela 50.000 urte. Asia hegoaldeko uharte bateko hondartza batean pertsona talde bat dago. Txalupa apal batzuk egin dituzte hainbat enbor erabiliz, janari apur bat hartu eta itsasora abiatzeko prest daude. Ez dakite zer dagoen ortzemugaren atzean, ez dakite biziko diren eta ez dakite nora iritsiko diren. Baina jakinmina dute. Batzuk Australiara helduko dira. Gehienak bidaian hilko dira.

1966. urtea. Edinburgoko Unibertsitatean Fisika-irakasle den Peter Higgs-ek Eskoziako Highlands lurraldean asteburua kanping batean pasatzea erabaki zuen. Baina eguraldi txarra dagoela eta bere Edinburgoko apartamentura bueltatzen da. Han, Unibertsoaren materiaren sorrera azaltzeko beharrezkoa den partikula baten esistentzia proposatu zuen. Higgs-en bosioa deitzen zaio.

Gaur egun

2014. urtea. Uribe Kostako bazter batean, edo Mumbaiko auzo batean, edo Nairo-biko etxola batean, ume batek galdetu dio bere aitari edo amari: “zergatik da urdina zerua?” Hala, gizakion jakinmin eta handitasunak etengabe aurrera egingo du.



Historian milaka zientzialarik ekarpen txikiak egin dizkiote giza ezaguerari, haietako batzuk prezio garestia ordainduz, batzuetan bizia emanaz, sarritan intoleran-

«Zientzialarien pasadizo eta batzuetan miseriek hunkituko gaituzte; jakinminaren ontzi zirragarrian abiatuko gara...»

tzia eta botere dogmatiko eta begirada motzekoari ausart aurre eginez. Haien lan isil eta apalari esker, gure espeziea gaur egun dagoen lekuraino iritsi da. Etorkizuna baikor begiztatzeko itxaropena badugu, Zientziari esker izango da. Beharbada, urte gutxi barru gure inguruan Uribe Kos-

tako edozein parketan jolasean ari den umeren batek, bere ekarpen txikia egingo du. Eta Isaac Newtonen hitzetan, erraldoien sorbalden gainean izango da.

Gaur sortzen dugun zientzia-atal honetan gizakiaren sormen handiaren murgilduko gara. Gizakiaren izpiritua handitasuna eta edertasuna jorratuko ditugu, zientzialarien pasadizoek, eta batzuetan miseriek, hunkituko gaituzte. Superstizioa, dogmatismoa eta pentsaera irrazionala historiaren ziega ilun eta sako-netan giltzapetuko dugu.

Zientziak eskaintzen digun itxaropena ospatuko dugu. Ondo etorri bidaia honetara. Aurrerantzean, gitxi gorabehera hilean behin, jakinminaren ontzi zirragarrian abiatuko gara. Ondo etorri! ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE
Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia
Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



GOSARIAK PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Asegaitzentzat

Onddoak eta ahuntz-gazta patata-tortillan



Pintxoa Bodeguilla tabernako barran aurki dezakezu

Aski ezaguna da orainoan dakarkizugun pintxoa Bodeguilla tabernako bezeroen artean: ahuntz gazta eta onddoak dituen patata-tortilla. Mokadu txiki bat janda ase sentitzen ez direnentzat ezin a proposagoa da, arrautzopil oso batek osatzen baitu pintxoa.

Pintxo hau egiteko ez da beharrezkoa aparteko sukaldaria izatea, patata-tortilla normal bat egiteko pausoak bete behar baitira soilik. Hasteko, patatak zuritu eta puska txikitik moztu behar ditugu. Ondoren, zartagin batera oliba olio bota eta bertan frijitu patata, apur bat marroi egon arte. Ondoren, arrautzak ontzi batean irabiatu eta gehitu frijitutako patatak. Dena ondo nahastuta dagoenean, zartaginerara bota, olio apur batez. Emon buel-

ta tortillari alde biak egin daitezten. Ostean gaztaren txanda helduko zaigu. Ahuntz gazta-zilindroa moztuko dugu, 3 edo 4 zentimetrotan; eta oso bero dagoen plantxa batean jarri, alde batetik egiteko. Onddoak prestatzeko, berriz, zartaginean onddoak bota, berakatzagaz, ardo zuriaz eta perrexil apur batez. Dena ondo salteatu eta kito! Pintxoa egiteko osagai guztiak prest izango ditugu dena muntatzeko. Horretarako, patata-tortilla erabiliko dugu oinarri gisa. Horren gainean, gazta jarriko dugu eta, azkenik, salteatutako onddoak. Hala, prest izango dugu poteoetarako mokadu ederra! o

Osagaiak: patatak, olio, arrautzak, onddoak, berakatz, ardo zuria eta ahuntz-gazta.



MONIE JAIA 1
48993 Getxo (BIZKAIA)
CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM 94 460 86 48

uk zure publizitatea hemen!
94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra
Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratia@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxerriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

uk zure publizitatea hemen!
94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Ikasketak amaitu eta sekulako ospakizuna egin duzu. Baina igaro dira aste batzuk eta... orain, zer? Lanposturik topatzen ez baduzu masterren bat egin dezakezu...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Badakigu jakin burua galduta zabilzala maitale ezezagun baten erruz, erabat tontotuta. Lagunak irrikan daukazu hura ezagutzeko, noiz arte sufriaraziko dituzu?

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Urtebete gehiago eta inoiz baino zorionsuago! Aro barri bati ekingo diozu, baina lasai egon, ez zaituzte damutuko! Gozatu zure bizilekuaz eta bizimoduaz, merezi duzu-eta!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Animalia zaleak zaretela argi dago, baina: beste txakur bi? Daborduko zenbat daukazu: bost? Horiei oiloak eta untxiak gehitu behar zaizkie... Azkenean ez zarete danak kabituko!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Bihotz onekoa zaren bezala beti zaude prest lagunei laguntzeko. Horietako batek mesede bat eskatuko dizu laster, baina egindakoan, eskerrik emon ez. Kokoteko bat, behintzat, merezi du.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Beharpenak luzatu dituzu eta denboraldi barriagaz lotu dituzu, ohi legez. Baina zer demontre egingo duzu hainbeste arropagaz eta trastezagaz, tonbola muntatuko duzu?

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Gastroenteritisa, gripea... danak izan dituzte aurretik. Bolada txar bat igaro da, baina tentuz ibili, badator-eta beste bat. Ondo zaindu barriro gaixotu gura ez baduzu, birusak airean daude-eta...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Hotza gorputzetik ezin atara zabilzta, ezta? Lau kamiseta, jertsea eta jaka potoloa jantzi arren ez duzu lortzen berotzea. Amamari kasu egin behar zenion eta hegoaldera bizitzera joan.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Beste danek opor daukatenean kezkatzen zara zuk lan egin behar duzualako; baina orain, zer? Hilabete daroazu pelmada emoten laster Txinara joango zarela. Bueltan lagunik izango ote duzu?

META



(Irailak 17 urriak 16)
Badirudi egunak luzatzen doazela, apurka-apurka bada ere. Eskerrak, goibel-goibel zabilzta-eta azkenaldian. Alaitu aurpegi hori, izan ere, laster aterako dira mila koloretako lorak!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Lagun arraroak daukazu eta, oraingoan ere, zail izango duzu gura duten oparia asmatzea. Ez zaituzte izan alferra eta buruari eragin, beti ezin daiteke oparitu disko bat.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Nekeza izango da lekualdatzea, baina merezi izango du, ziur egon. Erxe barria, auzokide barriak... eta pisukide aparta izango dituzu! Bada, zain egizu ondo, urrea baino baliotsuagoa da-eta!

Laurita Siles 2014

Bizitzea askea izatea da!

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren bulegoan

URIBE KOSTAKO ALDIZKARIAREN EKOTZPENA uk

Uribe Kostako aldizkariaren ekotzpena uk

AITZIBER ESTANGA > musikaria

“Gitarra jotzeko garaian azkazal faltsuak jartzen ditut”

Testua: **Iker Rincon** Argazkia: **Aitziber Estanga**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Berritsua eta saltseroa.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Lagunik gabe. Elkartzen garenean egiten ditugun terapia modukoek ez dute preziorik, zeharo berritua bueltatzen naiz etxera.

Zerk emoten dizu beldurra?

Toki itxi batean txoriak aske ibiltzea. Panikoa diot horri; baita apoei ere.

Badakazu ohitura txarren bat?

Asko! Azkazalak jatea horietako bat da. Kontrolatu ezin dudana gauza bat da, eta gero, gitarra jotzeko garaian azkazal faltsuak jartzen ditut kontzertuetarako.

Gogoko esaldi edo lelorik?

Zaindu maite duzun hori.

Eta aitor dezakezun bizio bat?

Jatea! Edozer gauza dut gustuko, baina aukeran txitxia.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Kubara joango nintzateke oraintxe. Egonda nago eta lagunak ditut bertan. Pozik ikusiko nituzke, niretzako nire bigarren familia dira.

Zein da zure ametsetako bat?

Duela gutxi bete dut gehien amesten nuena. Ni musikaria izateaz gain pelukera ere banaiz, eta duela hilabete ireki dut nire pelukeria.

Kontzertuak emateko lekurik onena?

Niretzat toki itxiak, tabernak, antzokiak... Festibalak edo jai handiak ere gustatzen zaizkit, baina toki txikietan jendea gertuago sentitzen dut eta hori gustatzen zait.

Non gura zenuke kontzertu bat emon? Zergatik?

Donostiako Saguesen. Tokia ezin hobea iruditzen zait. ○

LABURREAN— Aitziber Estanga (Donostia, 1977) txikitan hasi zen soinu txikiagaz, eta ordutik ez da aldendu musika mundutik. Egun Damba musika-taldean dabil, eta gitarra, perkusio txikiak eta abeslari lanetan dihardu, Estitxu Pinatxogaz batera. Musikaria izateaz gain, Estangak bere ametsetako bat bete zuen duela hilabete bat, ileapaindegi bat irekitzea. Hala, kontzertuz kontzertu ibiltzeaz aparte ileak apaintzen ditu han eta hemen.

KAFKAREN AULKIA

IRAKURRALDI BERTSOTUA



UXUE ALBERDI ANDONI EGAÑA PELLO RAMIREZ

OIER GUILLEN

Ordu eta erdi inguruko jarduna txirikordatuko dute Oier Guillen idazleak eta Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariek, Pello Ramirezen txeloaren eta akordeoiaren doinuen gainean.

Otsailaren 20an,
20:00etan
Erandioko azoka zaharrean



Sarrera, librea


E! Erandiko Elizateko Udala



ARTEDRAMA - KULTUR LEIOA

Jose Ramon Aketxe Plaza, 11
48940 Leioa (Bizkaia)

www.kulturleioa.com



DISSEINUA: Idoia Beratarbide

Lau egunez
euskal
sorkuntzaz
gozatzeko
parada

Leioa
2014

OTSAILAK 20

“Konpota”

Dxusturi Teatroa

ANTZERKIA

OTSAILAK 21

“NAN”

Ertza-Asier Zabaleta

DANTZA

“Transhumantzia”

Mixel Etxekopar
& Francois Rossé

MUSIKA

OTSAILAK 22

“Zazpi aldiz elur”

Tanttaka

ANTZERKIA

“Pepino ustelak (hozkaileuan)”

JB Pedradas

ANTZERKIA

OTSAILAK 23

“Gabrielen lekua”

Gabriel Aresti Kultur Elkarte
/ Zenbat gara

BERTSOAK / MUSIKA / ANTZERKIA